



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko maiatzaren 14a

51. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, erlijio irakasleen lan egoeraren aldetari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da berariaz azter dezan ikasle etorkinen matrikulazioaren auzia”. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Nafarroako institutuen funtzionamendurako aurrekontuetan dagoen diruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria Agag jaunaren eta Aznar andrearen ezkontzara joateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Munduko Pilota Txapelketaren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “El Bocal” multzoa interes historiko eta kulturalerako ondasun deklaratzeko behar diren urratsak eman ditzan”. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Arte Ederretako Museoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak irekita egoteko denbora luzatzeko”. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, NA-10.074 ehiza-barrutiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, fatxada publikoetako sinbolo frankistak kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

- Galdera, Sakanako autobiarri eta hura mantentzeko kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, 372/2000 Foru Dekretuaren deuseztasun-adierazpena ez argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Nafarroan zenbat museo edo museo-proiektu dagoen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko oinarritzko legedia bete dezan”. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Mendillorri liburutegi bat eta kultur areto bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Mendillorri Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Mendillorri IV ikastetxe publikoa zabaltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Tuterako “Torre Monreal” deitutako eraikineko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, VW Navarra-ko inbertsioari, enplegua sortzeari eta Nafarroako Gobernuak eginiko ekarpen ekonomikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, nekazaritza-ustiategi txikien egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, babes ofizialeko etxebizitzaren moduluen prezioa aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, Mendillorriko IV. eta I. faseen ondoan errepidea bikoizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, Legionelosiarri aurrea hartu eta kontrolatzeko uztailearen 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren beteazeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Galdera, Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (43. or.).
- Galdera, Volkswageni Nafarroan ezarri zenetik emandako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (55. or.).
- Galdera, arriskuko kirolen praktika arautzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (57. or.).
- Galdera, erditze, zesarea eta haurren ospitale-larrialdien kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (57. or.).
- Galdera, pediatrek egiten dituzten guardiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (59. or.).
- Galdera, Tuterako ospitaleko laguntza pediatrikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (60. or.).
- Galdera, Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoa zabaltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (60. or.).
- Galdera, Nafarroako familiak babesteko politikari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (61. or.).
- Galdera, euskarari buruzko Foru Legeak definituriko lurralde-eremuen arabera, errepideetako kontserbazio programen barruan eginiko jarduketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (63. or.).
- Galdera, hedabideetan euskara erabiltzeko laguntzetarako deialdi publikoa ez egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (64. or.).
- Galdera, beste autonomia erkidegoek behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formea dela-eta emandako laguntzekin izan duten estrategiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (65. or.).
- Galdera, poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (66. or.).
- Galdera, trafikoaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (66. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, erlijio irakasleen lan egoeraren aldaketari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak erlijio irakasleen lan egoeraren aldaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du erlijio irakasleen lan egoeraren aldaketari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Ez. Erlijio katolikoaren irakasleak kontratatze-ko, Hezkuntza eta Kultura Departamentua honako hauetan oinarritzen da: Espainiako Estatuak eta Egoitza Santuak irakaskuntzari eta kultur gaiei buruz 1979ko urtarrilaren 3an izenpeturiko akordioaren III. artikulua, LOGSEren 2. xedapen gehi-

garrian xedatutakoa eta ikastetxe publikoetan erlijio katolikoaren irakaskuntzaz arduratzen diren pertsonen ekonomia eta lan araubideari buruzko 1999ko otsailaren 26ko hitzarmena. Bestalde, abuztuaren 4ko 1477/2000 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion Nafarroako Foru Komunitateari Nafarroako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publikoetan erlijioaren irakaskuntzan aritzen diren langileen lanpostuak, 2000ko irailaren 1etik aitzina ondorioak izateko.

Erlijio irakasleek jasotzen dituzten lansariei dagokienez, LOGSEren 2. xedapen gehigarriak, zerga, administrazio eta gizarte neurriei buruzko abenduaren 30eko 50/1998 Legeak emandako idazketaren arabera, irakasle horiek kasuan kasuko hezkuntza mailako bitarteko izaera duten irakasleei dagozkien lansariak jasoko dituztela adierazten du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da berariaz azter dezan ikasle etorkinen matrikulazioaren auzia”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da berariaz azter dezan ikasle etorkinen matrikulazioaren auzia”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: “Nafarroako Gobernua premiatzen da berariaz azter dezan ikasle etorkinen matrikulazioaren auzia”. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Honelako ikasleen eskolatzeari 2002-2003 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuari buruzko urtarrilaren 25eko 7/2002 Foru Aginduan (urtarrilaren 11ko NAO) jasota dago. Foru agindu horrek ezartzen du haur hezkuntzako bigarren zikloko lehen eta bigarren mailako ikas-postuen % 8 erreserbatu beharra dagoela gizarte eta kultur egoera okerrean dauden ikasleentzat. Erreserba hori hezkuntza sistemaren gainerako maila eta etapetan aplikatzen jarraituko da.

Nolanahi ere, ikasturte osoan zehar sartzen dira ikasle etorkin berriak Foru Komunitateko ikastetxeetan. Prozesu hau Eskolatzeko Batzordeak ikuskatzen du, ikastetxeekin batera lan eginez eta batzuetan udaletako gizarte zerbitzuen laguntzarekin ere bai.

Ikasle horiei dagokien ikasgela zehazteko malgu jokatzeko da, kontuan harturik aurretik izan duten eskolatzeari, eta adinaren arabera dagokien mailan edo beheagokoko batean sartzen dira (lehen hezkuntzan), baita bi atzeragokoa ere (derrigorrezko bigarren hezkuntzan). Bestalde, zenbait ikastetxek harrerako ikasgelak dauzkate, heldu berri diren ikasleentzat; bertan berariazko laguntza ematen zaie ordu jakin batzuetan.

Dibertsitate eta Kultura-Aniztasunerako Atala berriki sortu izanak aniztasuna kontuan hartzeko esparruaren barrenean ikasle etorkinez arduratzeko behar diren jarduketak programatu eta sustatzeko eta ikastetxeei aholku emateko helburuei erantzuten die. Azken bi urte hauetan 6 ikastaro egin dira irakasleen hobekuntzarako, 7 mintegi eta 13 modulu ikastetxeetan prestakuntza ematekoak, esperientziak trukatzeko jardunaldi batzuk eta material didaktikoak aurkezteko hainbat saio, kultur aniztasunak hezkuntzaren arloan eskatzen duen arretarekin loturik guztia. Jarduera horietan 890 irakaslek hartu dute parte.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 23an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako institutuen funtzionamendurako aurrekontuetan dagoen diruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak Nafarroako institutuen funtzionamendurako aurrekontuetan dagoen diruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 4ko 73. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du Nafarroako institutuen funtzionamendurako aurrekontuetan dagoen diruari buruz eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aurrekontu ekitaldi bakoitzean ematen die Nafarroako institutuei dirusarrera aurrekontu arrunt bat, horien jardunbide, jarduera eta material gastu ohikoei aurre egiteko. Urteko aurrekontu arrunt hori aurrekontuetan dagoen diruaren arabera egiten da (aurten 2001. urtekoak dira, luzatutakoak alegia), parametro batzuk oinarri harturik, ez helburu nagusi batekin, departamentuak ikastetxeak finantzatzeko erabiliko dituen zenbatekoak zehazteko baizik. Nafarroako institutuen autonomia -kudeaketan, antolaketan eta pedagogiaren alorrean dela-eta, haiek prestatzen dute bere gastu aurrekontua, parametroetako bakoitzaren zenbatekoak horretarako baldintza izan gabe, bai ordea jasozten duten diru kopuru osoa eta ikastetxeek sor ditzaketan dirusarrerak edo beste erakunde batzuetatik jaso dezaketena.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Nafarroako institutuen artean jardunbide eta jarduera gastuetarako aurrekontuko dirua banatzeko erabiltzen dituen parametroak edo irizpideak hauek izan dira:

1. Eraikinen konponketa eta kontserbazioa
2. Makineriaren eta tresneriaren konponketa.

3. Altzarien konponketa eta kontserbazioa
4. Bulegoko material arrunta.
5. Pentsako aldizkako harpidetzak eta beste.
6. Energia hornidurak (argia, elektrizitatea edo gasa tailer eta laborategietarako etab.)
7. Ur hornidura.
8. Berokuntzarako erregaia.
9. Irakaskuntzaz kanpoko langileen jantziarako gastuak.
10. Garbiketarako materiala
11. Jakinarazpenak.
12. Irakaskuntzako jarduerak.
13. Jarduera osagarriak.
14. Ikasleen gastuak egoitzak dauden tokietan.
15. Curriculum aniztasuneko, curriculum egokitu unitaterako edo lanbide hastapen bereziko programarako ikasgelak.

Aipatutako atal horietako batzuetan koefiziente zuzentzaile bat aplikatzen da goiz eta arratsaldeko lanaldia edo gaueko ordutegia duten ikastetxetarako diru kopuruak gehitzeko. Horrez gain, baliabide ekonomikoak adjudikatzeko beste zenbait alderdi hartzen dira aintzat: mantendu beharreko eraikinen azalera eta bolumen erabilgarriak; ikastetxeak dituen ikasle eta unitate kopurua, bertan irakasten diren hezkuntza mailak eta espezialitateak, eta ikastetxe horietan jardunean dauden unitateen edo horien lanaldiaren ezaugarri bereziak; modu horretan osatzen da ekitaldi ekonomiko bakoitzeko hasierako aurrekontua, ikastetxe bakoitzari urtean hiru zatitan ordaintzen zaiona.

2. Institutuen ekipamendurako 2002ko kontusaila jaisteko arrazoia izan da -beste kasu batzuetan bezala- Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak aurrekontuko kontusail guztiak egokitu behar izan duela 2001eko aurrekontuak luzatu izanaren ondorioz.

3. Nafarroako institutuen ekipamendurako kontusailak azken lau urteetan eta haien betetze maila.

FUNTZIONAMENDU GASTUAK

	1999	2000	2001	2002	2002
	PEZETAK	PEZETAK	PEZETAK	EUROAK	PEZETAK
BHletako gastu arruntak	833.398.745	880.866.773	920.832.100	5.592.321,38	930.483.985
BHletako gastu bereziak	88.500.682	65.962.164	54.440.668	103.280,89	17.184.494
Nafarroako Gobernuko beste ikastetxe batzuetako gastu arruntak	160.137.180	166.677.276	187.638.253	1.169.512,03	194.590.429
Nafarroako Gobernuko beste ikastetxe batzuetako gastu bereziak	8.907.135	5.920.855	1.667.473	4.358,75	725.235
Haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeak, orientazioa, osabidezko hezkuntza eta beste programa batzuk.	245.707.258	265.308.932	233.459.250	1.289.869,51	214.616.228
HASIERAKO AURREKONTUA	1.336.320.000	1.368.294.000	1.434.739.000	8.408.605,00	1.399.074.152
BETETAKO AURREKONTUA	1.336.651.000	1.384.736.000	1.398.037.744	8.159.342,56	1.357.600.371

Irakaskuntza ez-unibertsitarioetako ikastetxeen jardunbidearen, jardueren eta materialaren finantziazioa	1998	1999	2000	2001	2002 *
1.1. Hasierako aurrekontua (pezetak, milakotan)	1.305.000	1.336.320	1.368.294	1.075.278	6.442.594
1.2. Hasierako aurrekontuaren gehikuntza aurreko urtearen aldean	% 3,56	% 2,40	% 2,39		
2.1. Betetako aurrekontua	1.263.718	1.336.651	1.384.736	1.065.563	
2.2. Betetako aurrekontuaren gehikuntza aurreko urtearen aldean	% 0,55	% 5,77	% 3,60		
3. Urte bereko betetako aurrekontuaren eta hasierakoaren arteko alderaketa	% 96,84	% 100,02	% 101,20	% 99,10	
4.1. Hasierako aurrekontua				359.461	1.966.011
4.2. Betetako aurrekontua				327.116,7	
Hasierako aurrekontuaren bi kontusailak, guztira				1.434.739	8.408.805
Betetako aurrekontuaren bi kontusailak, guztira				1.392.679,7	

(*) Urte guztietako zenbakiak pezetatan emanik daude, 2002koak salbu, eurotan baitaude.

INBERTSIO GASTUAK

Urtea	KONTUSAILA/LERROA	IZENA	BATERATUA	BETETZEA, %
2002	41120-6059-424100	Ikastetxe publikoetan material didaktikoa, altzariak eta ekipoa erostea	823.250,00 ¤ (136.977.274 pta)	EKITALDIA ITXITA % 100
	41120-6059-424102	Lanbide heziketako ikastetxe publikoetan material didaktikoa, altzariak eta ekipoa erostea	1.367.834,00 ¤ (227.588.428 pta)	EKITALDIA ITXITA % 100
	41120-6059-424103	Lanbide heziketako plan teknologikoa	1.096.452,00 ¤ (182.434.262 pta)	EKITALDIA ITXITA % 100

Urtea	KONTUSAILA/LERROA	IZENA	BATERATUA	BETETZEA, %
2001	41120-6059-424100	Ikastetxe publikoetan material didaktikoa, altzariak eta ekipoak erostea	226.000.000 pta.	99,95
	41120-6059-424102	Lanbide heziketako ikastetxe publikoetan material didaktikoa, altzariak eta ekipoak erostea	375.500.000 pta.	99,97
	41120-6059-424103	Lanbide heziketako plan teknologikoa	301.000.000 pta.	99,87
2000	14700-7	Ikastetxe publikoetan material didaktikoa, altzariak eta ekipoak erostea	238.800.000 pta.	99,95
	14710-4	Lanbide heziketako ikastetxe publikoetan material didaktikoa, altzariak eta ekipoak erostea	442.700.000 pta.	99,84
	14720-1	Lanbide heziketako plan teknologikoa	1.000.000 pta.	98,98
1999	13110-1	Ikastetxe publikoetan material didaktikoa, altzariak eta ekipoak erostea	252.000.000 pta.	99,97
	13120-9	Lanbide heziketako ikastetxe publikoetan material didaktikoa, altzariak eta ekipoak erostea	350.000.000 pta.	99,98
1998	13110-1	Ikastetxe publikoetan material didaktikoa, altzariak eta ekipoak erostea	575.650.636 pta.	98,95

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 23an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Gobernuko Lehendakaria Agag jaunaren eta Aznar andrearen ezkontzara joateari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak Nafarroako Gobernuko Lehendakaria Agag jaunaren eta Aznar andrearen ezkontzara joateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 25eko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 26an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Taldeko foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuko Lehendakaria Agag jaunaren eta Aznar andrearen ezkontzara joateari buruz. Hona

hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko. Hitzez hitz hauxe dioen galderari erantzuteko:

Nafarroako Gobernuko lehendakaria den alde tik ala bere izenean joan zen Sanz jauna?

Karguak pertsoneri datxezkie. Pertsona bezala gonbidapen bat onartzeak ez du pertsona horrek bere gain duen erantzukizun edo ordezkari itza instituzionalaz salbuesten.

Betetzen duen karguarengatik joan baldin bazen, ondokoak jakin nahi ditut:

- Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren ordezkari itza ofiziala osatzen zuten pertsonen kopurua eta horien izenak.

- Ospakizun horretara joateak eragindako gastuen xehetasunak (ostatatzea, aparteko gastuak,

ekitaldi ofizialak, bazkariak, afariak, opariak eta abar).

- Gastua oraindik exekutatu ez baldin bada eta kontuen egoera-orrietan oraindik jaso ez baldin bada, esan zer aurrekontu duen gastuak.

- Zer aurrekontu-lerrori egozten zaion gastu horietako bakoitza, hala exekutatu denak nola aurreikusitakoak.

Nafarroako Gobernuak lehendakari Sanz jaunarekin ez zen inongo ordezkaritza ofizialik joan

Agag-Aznar jaun-andreen ezkontzara, eta ogasun publikoari egotzi ahal zaizkion gastu bakarrak dira lehendakariaren jarduera eta joan-etorri guztietan bere segurtasuna bermatzeak dakartzanak, gure gizarteak eta bereziki terroristen ideia politikoekin bat ez datozen pertsonen pairatzen duten terrorismoaren jazarpenak eta iraupenak hartara behar-turik.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ea

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, José Miguel Nuin Moreno jaunak eta Milagros Rubio Salvatierra andreak Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 9ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

José M^a Aierdi Fernández de Barrena, José Miguel Nuin Moreno eta Milagros Rubio Salvatierra jaun-andreek galdera bat egin dute Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

1.- Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaien ondorioz abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua egun deuseza dela hartzen du oinarri galderak.

Hori horrela, argitu beharra dago lehenik eta behin, erabat baldintzatzen baitu eginiko galderei eman beharreko erantzunen edukia, ez direla oraindik ere irmoak Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua deuseza dela esa-

nez eman duen epaia eta gai horri buruz izan diren beste epaiak; izan ere, ebazteko dauka Auzitegi Gorenak onartuko duen ala ez horri buruzko kasazio-errekurtsoa.

Beraz, aipatutako ebazpen judizialak irmoak izan arte, ez dago esaterik foru dekretua deuseza denik, eta, beraz, ez dago ezer egiterik foru dekretu hori aplikatuz onetsiriko administrazio-egintzei buruz.

2.- Azpimarratu beharra dago ezen Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak onetsiriko deialdiei dagokienez, hala Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan sartzekoak nola lanpostuak betetzekoak, betiere, bai abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua onetsi aurretik eta bai ondotik, aplikatzekoak zitzaizkien lege eta erregelamenduei jarraikiz egin direla; legea, hain zuzen ere, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina da, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia.

Funtzio publikoari dagokionez, lege horrek izan du erregelamendu bidezko garapena: Nafarroako administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamendua, ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak onetsia. Lanpostuen betetzea arautzeko, berriz, erregelamendu mailako arauok eman dira: Nafarroako administrazio publikoan lanpostuak betetzeko Erregelamendua, azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuak onetsia; abenduaren 29ko 388/1997 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio departamentu eta erakunde autonomoen barrenean, langileen mugi-

garritasunerako prozedura ezartzen duena; eta abuztuaren 12ko 130/1998 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioa eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak betetzeko deialdietan aplikatuko diren merezimendu baremoak ezartzen dituena.

Horrenbestez, aipatutako arauak ezartzen dute zuzenean deialdien edukia, bai eta beste zenbait kasutan aplikatzekoak diren zenbait albo-arauk, eta deialdiaren oinarriek.

Beraz, kontuan hartuz abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuak ez duela kanpotik edo modu autonomoan arautzen funtzio publikoan sartzeko ezta lanpostuak betetzeko inongo sistemarik, ondorioa da ez dela inongo deialdirik onetsi dekretu horren garapen gisa.

3. Azkenik, eta departamentu honi dagokionez halaber, esan beharra dago Foru Dekretua onetsi eta ez dela aldaketarik egin behar izan barneko eta kanpoko seinaleetan; kasu batzuetan, zeuden seinaleak egokitu besterik ez da egin behar izan, euskarazko izenak kenduz, eta horrek ez du gainkosturik izan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurra Induráin

Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna

José M^a Aierdi Fernández de Barrena, José Miguel Nuin Moreno eta Milagros Rubio Salvatierra jaun-andreek galdera bat egin dute administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen 372/2000 Dekretuaren aplikatzeari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ez du inongo deialdirik egin dekretu hori oinarri hartuta.

Nafarroako Zerga Ogasunean zeuden seinaleak aldatu dira Iruñean; hau izan da aldaketen kostua:

– Nafarroako Ogasunaren eraikin nagusia: 1.870,47 euro.

– Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuaren egoitza: 971,82 euro.

– Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa: 350,16 euro.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 24an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

Toki Administrazioko kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak 372/2000 Dekretua eta haren ondoko jarduketa planak deusezak direla adierazi zuela-eta galdera egin dute EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrenak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok eta Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierrak. Hona erantzuna:

Lehena.- Zer egin du Nafarroako Gobernuak aipatu 372/2000 Dekretua –deuseza egun– garatze aldera?

Barneko seinaleak eta paper-gauzak aldatu dira.

Bigarrena.- 372/2000 Dekretua onetsi zenez geroztik barneko nahiz kanpoko seinaleetan Gobernuak egindako aldaketek zer kostu izan dute?

– Barneko seinaleetako aldaketek: 1.406,55 euro.

– Paper-gauzetako aldaketek: 860,91 euro.

Hirugarrena.- 372/2000 Dekretuaren babesean egindako zenbat deialdi errekurritu zen? Zertan da errekurtsio horietako bakoitza? Zer eragin du horietako bakoitzean Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaitzak?

Toki Administrazioko Departamentuak ez du inongo legezketasun kontrolik egin behar izan 372/2000 Foru Dekretuaren betetzea dela eta.

Laugarrena.- 372/2000 Dekretuaren babesean egindako zenbat deialdi baliogabetu ditu Gobernuak Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaitzari jarraikiz?

Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaitzaren eraginak Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 72.2 artikuluan ezarritakoak izanen dira, Auzitegi Gorenak xedapen orokorren irispen eta eraginkortasunari buruz sarritan adierazitako doktrinarekin bat; hau da, besterik ezean, ez dute atzeraeraginik.

Horrenbestez, norbaitek onartu egin badu xedapen orokor bat aplikatuz eman den administrazio-egintza, ezin izanen du xedapen horren eraginkortasunik eza eskatu epai batek hala ezarri duelako, non eta behar zenean ez bazituen inpugnatu egintza haren ondorioak.

Iruñean, 2002ko irailaren 17an

Toki Administrazioiko kontseilaria Rafael Gurrea Induráin

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuak euskararen erabilerari buruzko 372/2000 Foru Dekretua garatzeko egini-ko jarduketari buruz galdera egin dute EA/EAJ-PNV, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Batzarre-Askotariko Parlamentuko taldeek. Hona Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, hizpide dugun foru dekretua deuseza dela deklaratu arte, arian-arian aplikatu ditu 2001eko urtarrilaren 8an Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiaren 3. idatz-zatian jasotako neurriak; erabaki horrek onetsi zuen "euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko ekintza-plana", non inprimaki eta paper, seinale, iragarki eta zigilu ofizialei buruzko neurriak ezarri baitziren.

Hartutako neurriek, gutxi gorabehera, 3.800 euroko kostua izan dute; errotuluak eta zigiluak aldatzeak eragin du bereziki kostua, gainerako materiala birziklatu eta aprobeztatu egin baita zegoena agortu arte.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 189. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuak 372/2000 Foru Dekretua garatzeko egini-ko jarduketari buruz galdera egin dute Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena, José Miguel Nuin, eta Milagros Rubio foru parlamentariak. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1.- 372/2000 Foru Dekretua oinarri hartuta tramitatu da departamentu honetan 2000-2001 aldirako lan eskaintza publikoan jasotako lanpostu hutsen betetzea –urtarrilaren 22ko 16/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen lan eskaintza hori, eta otsailaren 16ko 22. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, eta foru dekretu horretan oinarri hartuta, baita ere, etxezain eta liburutegiko arduradun izateko beste lanpostu huts batzuk.

Departamentu honen eskumenekoak diren lanpostu-betetzeak (irakasleak ez diren langileentzako barne mugikortasuneko deialdiak), 2000-2001 aldirako lan eskaintza publikoan ageri direnak.

Abenduaren 29ko 388/1997 Foru Dekretuari jarraikiz –Nafarroako Foru Komunitateko administrazioiko departamentu eta erakunde autonomoen barrenean, langileen mugigarritasunerako prozedura ezartzen du–, deialdi hauek tramitatu dira:

– Fisioterapeuta (lanpostu huts bat): Prozesu hau 2001eko apirilaren 5ean pertsonalki jakinarazi zitzaizen interesdunei; deialdia ekainaren 15eko 231/2001 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (uztailaren 13ko 85. NAO).

– Administrari laguntzaileak (16 lanpostu huts bat): Deialdia apirilaren 17ko 149/2001 Foru Aginduaren bidez onetsi zen (apirilaren 30eko 53. NAO) eta ekainaren 26ko 246/2001 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (uztailaren 6ko 82. NAO).

– Begiraleak (14 lanpostu huts): Prozesu hau 2001eko apirilaren 10ean pertsonalki jakinarazi zitzaizen interesdunei; deialdia ekainaren 15eko 268/2001 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (uztailaren 5eko 87. NAO).

B) Departamentu honen eskumenekoak diren lanpostu-betetzeak. (irakasleak ez diren langileentzako barne mugikortasuneko deialdiak), 2000/2001 aldirako lan eskaintza publikoan ageri ez direnak.

– eskolazainak (32 lanpostu huts): Deialdia azaroaren 13ko 428/2002 Foru Aginduaren bidez onetsi zen (abenduaren 10eko 149. NAO), aldatu egin zen otsailaren 27ko 41/2002 Foru Aginduaren bidez (martxoaren 13ko 32. NAO), eta apirilaren 25eko 125/2002 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (maiatzaren 17ko 60. NAO).

– liburutegiko arduradunak (13 lanpostu huts): Deialdia martxoaren 22ko 75/2002 Foru Aginduaren bidez onetsi zen (apirilaren 29ko 52. NAO) eta ekainaren 28ko 346/2002 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (uztailaren 31ko 92. NAO).

C) Barne mugikortasuneko prozesu horiek eginda, lanpostu hutsen berri eman zitzaion Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, hark behar ziren lekualdatze lehiaketak eta oposizioak egin zitzaizkien, apirilaren 1eko 165/1996 Foru Dekretuaren 2. artikularekin bat; izan ere foru dekretu horretan ezartzen da foru administrazioeko organoek langile arloan nola banatuta dituzten eskumenak.

D) Departamentu honek eskaini baditu ere, bete, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak bete beharreko lanpostu hutsak, aipatu dugun 165/1996 Foru Dekretuari jarraikiz.

– Liburutegiko laguntzaile lanpostuak: Lekualdatze lehiaketaren deialdia: 2001eko irailaren 10ean emaniko ebazpenaz onetsi zituen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak (urriaren 3ko 120. NAO); 2001eko urriaren 29an emaniko ebazpenaz, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak lanpostu horiek bete gabe gelditu zirela deklaratu zuen (azaroaren 26ko 143. NAO). Oposizioaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko apirilaren 8an emaniko ebazpenaz onetsi zen (maiatzaren 1eko 53. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Zerbitzu orokorretako laguntzaile-gidari lanpostua: Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2001eko irailaren 24an emaniko ebazpenaz onetsi zuen lekualdatze lehiaketaren deialdia (urriaren 24ko 129. NAO); Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko martxoaren 11n emaniko ebazpenaz ebatzi zuen lehiaketa (martxoaren 27ko 38. NAO), eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuari ez zitzaion bat ere atxiki.

– Biltegiko urgazle-gidari lanpostua: Lekualdatze lehiaketaren deialdia 2001eko irailaren 10ean emaniko ebazpenaz onetsi zuen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak (urriaren 1eko 119. NAO); 2001eko urriaren 29an emaniko ebazpenaz, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak lanpostu horiek bete gabe gelditu zirela deklaratu zuen (azaroaren 26ko 143. NAO). Oposizioaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko maiatzaren 13an emaniko ebazpenaz onetsi zen (ekainaren 10eko 70. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Indusketako langileburu lanpostu bat: Oposizioaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2001eko urriaren 8an emaniko ebazpenaz onetsi zen (azaroaren 23ko 142. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Atezain (Idazkaritza Teknikoa) lanpostu bat: Lekualdatze lehiaketaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2001eko abuz-

tuaren 1ean emaniko ebazpenaz onetsi zen (abuztuaren 13ko 98. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Bigarren mailako hargin-ofizial lanpostua: Lekualdatze lehiaketaren deialdia 2001eko urriaren 8an emaniko ebazpenaz onetsi zuen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak (azaroaren 7ko 135. NAO); 2002ko urtarrilaren 14an emaniko ebazpenaz, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak lanpostu horiek bete gabe gelditu zirela deklaratu zuen (otsailaren 15eko 20. NAO). Oposizioaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko maiatzaren 13an emaniko ebazpenaz onetsi zen (ekainaren 10eko 70. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Peoi lanpostua: Iruñeko "Agroforestal" Bigarren Hezkuntzako Institutuari atxikitako 31.279 zenbakidun peoi lanpostua E mailako lanpostu hutsak lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian sartu zen; deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko urtarrilaren 28an emaniko ebazpenaz onetsi zen (otsailaren 8ko 17. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Atezain lanpostuak: Lekualdatze lehiaketaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko apirilaren 22an emaniko ebazpenaz onetsi zen (maiatzaren 17ko 60. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuan, 372/2000 Foru Dekretua indarrean sartu aurretik zeuden seinaleak bere horretan jarraitzen dute, ez dira aldatu.

3. 428/2001 Foru Aginduaren aurka bi errekurso aurkeztu ziren: bat ez zen onartua izan eta bestea ezetsi egin zen; biak ere Gobernuak 2002ko maiatzaren 27an hartutako erabakien bidez. 41/2002 Foru Agindua ere ezetsi egin zen Gobernuak maiatzaren 27an hartutako erabaki baten bidez.

4. Esan beharra dago, azkenik, departamentu honek duen informazioaren arabera, ez dela aipatutako deialdietatik bat ere deuseztatu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruz galdera egin dute EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrenak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok eta Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierrak. Hona, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo jarraikiz, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariaren erantzuna:

Lehena. Zer egin du Nafarroako Gobernuak aipatu 372/2000 Dekretua –deuseza egun– garatze aldera? Hauxe jakin nahi dugu: dekretu horren karietara deitu diren lanpostuak, deialdi horiek gaur egun zertan diren, bururaino eraman diren deialdiak, tramitean direnak eta abar. Orobat jakin nahi dugu zer egin duten beste departamentu batzuek barneko seinaleak –bulegoak– nahiz kanpokokoak –errepideak eta abar– jartzearen alorrean.

372/2000 Foru Dekretua deuseza dela dioen epaia ez da irmoa, errekurtsioa baitago jarrita Auzitegi Gorenean; beraz, aipatu foru dekretua ez da deuseza.

Foru dekretu hori oinarri hartuta deitutako lanpostuak: bat ere ez.

Bigarrena. 372/2000 Dekretua onetsi zenez geroztik barneko nahiz kanpoko seinaleetan Gobernuak egindako aldaketek zer kostu izan dute?

Kostua: 2.855 euro.

Hirugarrena. 372/2000 Dekretuaren babesean egindako zenbat deialdi errekurritu zen? Zertan da errekurtsio horietako bakoitza? Zer eragin du horietako bakoitzean Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaitzak?

Ez da errekurtsorik izan.

Laugarrena. 372/2000 Dekretuaren babesean egindako zenbat deialdi baliogabetu ditu Gobernuak Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaitzari jarraikiz?

Bat ere ez.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko irailaren 18an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
Calixto Ayesa Dianda

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruz galdera egin dute EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrenak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok eta Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierrak. Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak hurrengo du esateko Departamentuaren jarduketei dagokienez:

Galdera.

1. Zer egin du Nafarroako Gobernuak aipatu 372/2000 Dekretua –deuseza egun– garatze aldera?

Hauxe jakin nahi dugu: dekretu horren karietara deitu diren lanpostuak, deialdi horiek gaur egun zertan diren, bururaino eraman diren deialdiak, tramitean direnak eta abar.

Orobat jakin nahi dugu zer egin duten beste departamentu batzuek barneko seinaleak –bulegoak– nahiz kanpokokoak –errepideak eta abar– jartzearen alorrean.

2.-372/2000 Dekretua onetsi zenez geroztik barneko nahiz kanpoko seinaleetan Gobernuak egindako aldaketek zer kostu izan dute?

3.- 372/200 Dekretuaren babesean egindako zenbat deialdi errekurritu zen? Zertan da errekurtsio horietako bakoitza? Zer eragin du horietako bakoitzean Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaitzak?

4.- 372/200 Dekretuaren babesean egindako zenbat deialdi baliogabetu ditu Gobernuak Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epaitzari jarraikiz?

Erantzuna.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, kontserbazio programen barruan, errepi-deetako seinaleen ohiko berritzea eta egin berri diren errepideetan seinaleak ezartzea baizik ez du egin.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari ez dio batere kosturik ekarri; izan ere, Departamentuak, esan berri den bezala, ohiko lan gisa egin baitu seinaleak jartzearena.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruz galdera egin dute EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrenak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok eta Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierrak. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Gaiei galdetu diren ordena berean erantzunen diet.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak hutsik du 5912 zenbakidun administrari laguntzaile lanpostua, Irunberrin; egun, aldi baterako langile batek betetzen du, eta euskara jakitea baldintza du. Lanpostu huts hori ez da lan eskaintza publikoan irten. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko 15 lanpostutan baloratzen da euskara jakitea –eremu euskalduneko toki entitateetan daude–. Horietako bat gaur egun hutsik dago, aldi baterako langile batek betea, eta ez dago lan eskaintza publikoan.

2. Ezin izan da ordezen orokorrik egin Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan; izan ere, zerbitzu publikoko egoitza asko dago eta horrek kostu ekonomiko handia ekarriko luke. Gutxika-gutxika egiten ari dira aldaketak, sortzen diren seinale-beharrei aurre eginez.

3. eta 4. Horien erantzuna ez dagokio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 23an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gobernuak 372/2000 Dekretua garatzeko eginiko jarduketei buruz galdera egin dute EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrenak, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Morenok eta Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierrak. Hona Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren kabineteko buru Jorge Nagore Frauca jaunaren erantzuna:

372/2000 Foru Dekretuaren garapen gisa kanpoko seinaleetan eginiko aldaketek (Departamentuaren izena gaztelania hutsean) honako kostua izan dute: 68.730 pezeta (413,08 euro).

Esan beharra dago batera egokitu zirela errotiluaren aldaketa eta Departamentuaren izen aldaketa. Izen berrian, "Industria" hitzaren ondotik "eta Teknologia" jarri zen.

Paper-gauza guztietako menbreteak ere aldatu dira: euskaraz eta gaztelaniaz zeuden eta gaztelania hutsean jarri dira. Horrek ez du batere kosturik izan, ordenagailuko txantiloak baitira.

Iruñean, 2002ko irailaren 19an

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren Kabineteko burua: Jorge Nagore Frauca

Galdera, Munduko Pilota Txapelketaren kostuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Munduko Pilota Txapelketaren kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 16ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du munduko pilota txapelketaren kostuari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

1. Zenbateko kostua izan du azkenean munduko txapelketak? Zehaztu kostua kapituluz kapitulu.

Ezinezkoa da amaierako kostua kapituluz kapitulu azaltzea, ez baitira oraindik faktura guztiak iritsi, batzorde antolatzaileak adierazi digunez.

2. Zenbat diru jarri du Foru Gobernuak txapelketarako?

Gaur arte eginiko ekarpena 234.394 eurokoa da (39.000.000 pezeta).

Halaber, ordaintzeke dago oraindik (ordainduko da, betiere, zenbatekoa justifikatzen bada) 36.060 eurorainoko kopurua (6.000.000 pezeta).

3. Txapelketa telebistaz emateko Foru Komunitateko Gobernuaren eta RTVEren artean lortutako akordioaren kopia igortzea nahi dugu.

Ez da inolako akordiorik izan Foru Komunitateko Gobernuaren eta RTVEren artean. Hala ere, RTVE eta batzorde antolatzailearen artean sinatzea zen akordio baten testua badago. Batzorde horrek adierazi digunez, azkenean ez zen sinatu, alderdiek erabaki baitzuten haren edukia onartzea, sinatu beharrik gabe. Dokumentu horren testua erantsi dugu.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko irailaren 23an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria
Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “El Bocal” multzoa interes historiko eta kulturaleko ondasun deklaratzeko behar diren urratsak eman ditzan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da “El Bocal” multzoa interes historiko eta kulturaleko ondasun deklaratzeko behar diren urratsak eman ditzan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal jaunak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak harturiko erabaki honi buruz: El Bocal multzoa interes historiko eta kulturaleko ondasun deklaratzeko behar diren urratsak eman ditzan premiatzea Nafarroako Gobernua. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Logikoa denez, Estatuaren jabetza ez dute autonomia erkidegoek deklaratzeko interes kulturaleko ondasun, Estatuako Administrazioak berak baizik. Hala xedatzen du ekainaren 25eko

16/1985 Legea hein batean garatzen duen urtarrilaren 10eko 111/1986 Errege Dekretuko 11.2 artikulua, zeina urtarrilaren 21eko 64/1994 Errege Dekretuko 11.1 artikulua aldatu baitzuen: “16/1985 Legeko 6.b) artikulua ezarritakoari jarraikiz, Kultura Ministerioari dagokio espedienteak tramitatzea interes kulturalekoak deklaratu nahi direnean Espainiako Ondare Historikoko ondasunak, baldin eta Estatuako Administrazio Orokorrek kudeaturiko zerbitzu publikoei atxikirik badaude edo Ondare Nazionalako osagai badira. Ministerio horrek tramitazioa egingen du kapitulu honetan bildutako arauari jarraikiz”.

Dena den, El Bocal multzoak Interes kulturaleko Ondasun deklaratu izateko adina balio dituelakoan, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiko zenbait teknikari eta arduradun Ingurumen Ministerioaren menpekota den Ebroko Ur Konfederazioko arduradunekin harremanetan jarri ziren (Ur Konfederazio horri dago atxikia El Bocal), haiei Nafarroako Parlamentuaren ekimenaren eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren babesaren berri emateko, instalazio guztien ikustaldi bat egiteko, Ebroko Ur Konfederazioko ingeniari eta langileekin batera, eta multzoko elementuen argazki-erreportaje bat egiteko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 26an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Arte Ederretako Museoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Arte Ederretako Museoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 9ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Nafarroako Arte Ederretako Museoari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. 2001ean, Nafarroako Museoak 28.070 bisitari izan zituen, eta Museoak programaturiko jarduera kulturaletan 5.551 pertsonak parte hartu zuten.

2. 2002ko lehen seihilekoan, 15.071 bisitari izan dira, eta 2.507 pertsonak parte hartu dute jarduera kulturaletan.

3. Bisitariaren "tipologiari" dagokionez, 2001ean 26.316 espainiar izan ziren, eta 1.754

atzeritar. Espainiarren artean, 14.255 bisitari euren kasa etorri ziren; beste 1.995, helduen talderen bateko kide gisa; eta 10.066 pertsona etorri ziren eskola-taldeetako kide gisa. 24.587 bisitari dohainik sartu ziren, eta 753 sartu ziren prezio murriztua izanik. Bisitak, gehienbat, goizetan izan ziren (21.827 bisitari).

2002ko lehen seihilekoko datuen arabera, 14.109 bisitari espainiar etorri dira, eta 962 atzeritar. Lehenbizi aipatuei dagokionez, eskola-taldee-takoak ziren 6.478, eta helduen kolektiboetakoak 1.398. Goizetan, 12.047 bisitari izan ziren, eta arratsaldetan, 3.024. Dohainik sartu ziren 13.733 bisitari, eta prezio murriztuarekin, 351.

4. Nafarroako Museoaren segurtasunaren urteko kostua 265.890 eurokoa da.

5. Nafarroako Museoaren aurrekontua langileen gastuetarako 809.937,10 eurokoa da; mantentze-lanetarako, 302.581 eurokoa, eta funtzionamendurako, 473.305 eurokoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 26an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak irekita egoteko denbora luzatzeko"

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: "Nafarroako Gobernua premiatzen da jarduketa plan bat egin dezan ikastetxe publikoetako instalazioak irekita egoteko denbora luzatzeko".»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna,

na, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko irailaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak ikastetxe publikoetako instalazioak irekita egoteko denbora luzatzeko jarduketara plan bat egitearen inguruan hartu zuen erabakiari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

Ados gaude ikastetxeek euren jarduera eskola-erkidego guztira helarazi eta auzoan edo herrian gizarteratu behar izatearekin, eta horrela, kasu askotan, kolektibo eta elkarteen ekimenak hartu eta garatzearekin. Ikastetxeen lokalak eta instalazioak toki egokiak izan ohi dira jarduera horietako batzuk egiteko, hala nola irakaskuntzaren, elkarteen, kulturaren edo kirolaren arlokoak.

Urtarrilaren 9ko 2/1995 Foru Dekretuak arautzen du unibertsitatekoak ez diren mailetako ikastetxeen eta eskola-egoitzen erabilera, bai eta eskolek erabiltzekoak diren kirol instalazioena ere. Foru dekretu horren helburua da Hezkuntza-sistemaren antolamendu orokorrerako urtarrilaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak ezarritakoa bete dadin lortzea. Lege horrek hamazazpigarren xedapen gehigarrian adierazten duenez, "hezkuntza-arloko administrazioek prozedura bat ezarriko dute haien menpekoak diren ikastetxeak udaleko agintariekin erabiltzeko dagokionez, eskola-orduetatik kanpo, hezkuntza, kultura, kirol edo gizarte izaerako beste jarduerak batzuetarako. Erabilera hori baldintzatuko dute, soilik, ikastetxe horietako jardueraren ondoriozko beharrezanek".

Beraz, gaur egun jadanik badago hezkuntza arloko instalazioen erabilera antolatzen duen araudia; betiere, hezkuntza arloko eragile batekin antolatu eta aurreikusirik erabilera baldin bada, adierazitako jarraibide eta erabileren arabera. Egin-eginean ere, elkarrekin konpartituz erabiltzen dituzte ikastetxeek eta udalek eskoletako eta/edo kiroleterako instalazioak.

Udalek programaturiko jarduerak udal-funtsekin finantzatzen dira, eta herriak prestatzen eta praktikan jartzen joan diren hezkuntza proiektuetan sarturik daude. Gaur egun, eta udalen esku menen esparruaren barnean, kultura, kirol edo gazteriaren arloko jardueren eskaintza zabala dago. Jarduera horiek egiten dira udalarenak edo erabilera konpartitukoak diren instalazioetan, eta horrela justifikatzen da gure herriek Nafarroako

Gobernuaren laguntzarekin azken urteotan instalazioetan egin duten inbertsioa.

Azpiegiturak sortzeko kezka onorio gisa, instalazio-eskaintza zabal bat dagoela esan dezakegu: kultur etxeak, gizarte etxeak, kiroldegia, liburutegiak, gazteria etxeak, aterpetxeak eta abar. Haietan gauzatzen dira hezkuntza, kirol eta, oro har, kulturaren arlokoak diren proposamenak.

Azpimarratzekoa da biztanleen sektore eta eskari multzo bati erantzuteko udalek antolaturiko ikastaro kopurua. Ikastaro horiek eskaintzen dira kirol eskoletan, kultura ikasgeletan (dantza, marrazkia, haurren antzerkia, argazkilaritza, diseinua, informatika...) eta abar. Kasu askotan, ikastaro horiek Nafarroako Gobernuaren finantzaketa eta laguntza daukate; gehienbat, Hezkuntza eta Kultura eta Gizarte Ongizate departamentuen bitartez bideratua (Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua). Adierazi behar da, bestalde, gure herri askotan udalen musika eskolak daudela, eta haiek ikasle kopuru handia hartzen dutela.

Ikastetxeek ere, gurasoen elkarrekin batera, eskolaz kanpoko jarduerak osagarriak antolatu ohi dituzte, eta jarduerak horiek ikastetxearen beraren instalazioetan egiten dira. Bestalde, gure herrietan denbora daramate dantzak, folklorea eta herri artisautea berreskuratu eta ikasteko jarduerak eta topaketak antolatzen, tokian tokiko festekin edo kultur jardueren egutegiarekin oso loturik daudenak.

Oporraldietan eskaintza hori guztia indartu egiten da, liburuigerileku programa bezalakoekin, finkapen- eta joko-jarduerekin (mozorro-tailerrak, txotxongiloak), herri dantza, auzolandegi, ibilaldien eta abar. Hitz gutxitan: haur, nerabe eta gazteek heziketa- edo joko-jarduerak aurkitzen dituzte, eskolaz kanpoko orduetan administrazio publikoekin antolatuak. Udalek eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak euren jarduerari buruz egindako oroit-idazkiek erakusten dute eskaintza zabala izaten dela (eta, batzuetan, eskaintako guztia ez da betetzen).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 26an.

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, NA-10.074 ehiza-barrutiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak NA-10.074 ehiza-barrutiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 16ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak NA-10074 ehiza-barruti pribatuari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Oraindik ere ez da espedienteak –horien artean, NA-10.074 barruti pribatuarena– aztertzen bukatu.

2. Ez da bidezkoa.

3. Departamentuak aurreikusita du 6 hilabete baino lehenago bukatzea aipaturiko espedienteaz aztertzen.

4. Departamentuak espedienteaz ebatzen ez duen bitartean, ezin dira hartu beharreko neurriak aurreratu. Hala eta guztiz ere behar diren neurriak hartuko dira Departamentuaren eskumeneko gaietan, bereziki eragin hori paira dezaketen abelbideen osotasuna eta abelbide horiek ibiltzeko moduan egotea bermatzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, egindako galderaren erantzuna,

na, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honen betetzea: "Nafarroako Gobernuaren premia bereziak bereziak dituzten ikasleak elkartzean oinarrituriko hezkuntza politika alda dezan". Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1.a Aurkako egoera sozial eta kulturalen ondoriozko hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleek hezkuntza-arreta normalizazio eta integrazio printzipioetan oinarritzen da, eta Nafarroako hezkuntza sistemak ikasleek aniztasunari aurre egiteko eta osabidezko hezkuntzarako eskaintzen dituen neurrien esparruan kokatu behar da. Hone-lako ikasleek eskolatzea 2002-2003 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesuari buruzko urtarrilaren 25eko 7/2002 Foru Aginduan (urtarrilaren 11ko NAO) jasota dago. Foru agindu honetan haien zati Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen eta bigarren mailetakoko postuen % 8 gordetzen da. Neurria joan den ikasturtean hasi zen aplikatzen, eta pixkanaka aplikatzen joan da hezkuntza sistemako datozen ikasturte eta etapetan. Kontuan hartu behar da, gainera, errenta maila baxuen ondorioz, populazio honek lehentasunezko puntuazioa duela ikasleak onartzeko prozesu arruntean.

Prozesu hori alde batera utzita, ikasturtean zehar immigraziotik heldutako haur eta gazteak sartu dira ikastetxeetan. Prozesu hau Eskolatze Batzordeak ikuskatzen du, ikastetxeekin batera lan eginez eta batzuetan udaletako gizarte zerbitzuen laguntzarekin ere bai. Ikasle horiek ikasgela bati atxikitzea, berriz, malgutasunez egiten da, haien aurretiko eskolatzea kontuan hartuta. Zenbait ikastetxek harrerako ikasgelak dauzkate, heldu berri diren ikasleentzat; bertan berariazko laguntza ematen zaie ordu jakin batzuetan.

Ikasle etorkinak ikastetxeetan banatzeak baldintza batzuk dauzka, noski: haiek bizi diren lekuan ikastetxe bat edo gehiago egotea da lehenbizikoa, baina horri beste inguruabar batzuk gehitu behar zaizkie, hala nola etxebizitzaren prezioa eta gurasoen lantokia ikastetxetik hurbil dagoen ala ez dagoen. Kontuan hartu behar dira, baita ere, ikastetxeen izaera edo ideiak, bai eta bertan irakasten diren hizkuntza ereduak ere. Funtsekin publikoekin ordaindutako ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleek banaketak honako bilakaera izan du: ikastetxe publikoetan % 64 eta ikastetxe itunduetan % 36 zen 96-97 ikasturtean; 2000-2001 ikasturtean, berriz,

% 57 eta % 43 hurrenez hurren. Atzerriko ikasleek dagokienez, berriz, ikastetxe publikoetan eta ikastetxe itunduetan eskolatutakoek % 64 eta % 35 egiten dute, hurrenez hurren, bi ikastetxe mota horiek dauden herrietan. Erreferentziako datu moduan, kontuan hartu behar da Nafarroako Gobernuaren ikastetxeen sarean eskolatutako ikasleek % 60 egiten dutela, eta ekimen sozialeko ikastetxeetan eskolatutakoek, berriz, % 40, gutxi gorabehera, eta irakaskuntza euskaraz ematen duten ikastetxeetan (D eredu) ia ez dagoela horrelako ikaslerik.

2.a Nafarroako ikastetxe guztietan orientatzaile bat dago. Orientatzailearen lanari, besteak beste, honako beste eginkizun hauek dagozkie:

Beharra duten ikasleek ebaluazio psikopedagogikoa egitea, eta, bereziki, hezkuntza premia bereziak dauzkatenena.

Aurreneurriak hartzea, arazoak antzemateko, eta arazo horiei konponbidea ematea eta haiek ahal den guztian saihestea, inguruko beste eragile batzuekin lan eginez, bereziki familiarekin.

Ikasteko edo gizarteratzeko arazoak dauzkaten ikasleek arreta ematea, curriculum egokitzapenak diseinatuz eta aplikatuz nahiz berariaz esku hartuz.

Inguruko gizarte eta osasun zerbitzuekin batera lan egitea, ikasleek aipatu zerbitzuen arloan dauzkaten hezkuntza premietan esku hartzeko.

Ikastetxeek, beren aldetik, beren eginkizunen artean ikasleek aniztasunari erantzuteko berariazko plan bat egitearena daukate, bai eta tutorekintzako plan bat ere, zeinean balizko gizarteratze arazoak dauzkan ikasleari arreta emateko bidea ezarriko baita. Pedagogia Terapeutikoko irakasle espezialistak era horretako lanetan ari daitezke beren horretarako dauzkaten orduetan, betiere ikastetxe bakoitzak aniztasunari arreta egiteko prestaturiko planaren arabera. Gainera, 25 ikasleko DBHko talde bakoitzeko 5 ordu ematen dira aniztasunari arreta egiteko eta beste zenbait ordu arlo batzuetan bikoizketak egiteko (laborategiak, hizkuntzak eta abar). Nafarroako Foru Komunitatean, hiru lerro edo gehiago dauzkaten ikastetxeek, DBHn aniztasunari arreta egiteko, arloko hiru irakasle (praktikoa, soziolinguistikoa eta zientifikoa) ematen zaizkie. Irakasle horiek Orientazio Departamentuan egonen dira.

Azken batean, Nafarroako ikastetxeek behar adina baliabide dauzkate aniztasunari kalitatea bermatuz erantzuteko, INCEk egindako azterlanetan eta estatistiketan erakutsi den bezala. Izan ere, Nafarroa da taldeko eta irakasleko ikasle ratio

baxuenak dauzkan erkidegoa. Horrenbestez, hezkuntza administrazioaren xedea da urtez urte kalitatezko hezkuntza bat eskuratu ahal izatea eta hezkuntzaren arloan berdintasun efektiboa izatea bermatzen jarraitzea Nafarroan bizi diren eskola adineko populazio osorako. Ondorio guztietarako, Nafarroan bizi diren haur guztiek, beren jatorria, izatea eta inguruabarrak zein diren kontuan hartu gabe, aukera berdintasunean oinarrituriko hezkuntza arreta jasotzen dute.

Aniztasunari arreta egiteko neurrien koordinazioa eta jarraipena Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiaren Pedagogia Berrikuntzarako Zerbituari dagozkio. 2002ko ekainean, bere baitan Dibertsitate eta Kultura-Aniztasunerako Atala sortu du, ondoko arloetako unitate teknikoekin: Hezkuntza Berezia, Hezkuntza Orientazioa eta Osabidezko Hezkuntza. Atal honek zuzenago bereganatu zuen hezkuntza premia bereziak zeuzkaten ikasleei eman beharreko arreta.

3.a Urtero-urtero gutxiengo etniko-kulturaletako ikasleentzako laguntzetarako deia egiten da, eskolarako materiala eta ekipamendua erosten laguntzeko eta kultur irteera eta bisitaldietan parte

hartu dezaten errazteko. Ikastetxeak berak dira laguntza hauek kudeatzen dituztenak, betiere dauzkaten beharren arabera. 2000-2001 ikasturtean, 19.000.000 PTA. eman ziren (114.186,29 euro). Aurrekontuen luzatzeak kontusail honek 2001-2002 ikasturtean gora egitea eragotzi du.

Halaber, ikastetxe itunduetako hezkuntza premia bereziak dituzten edo egoera sozial edo kultural txarretan dauden ikasleei arreta emateko laguntzen deialdi bat dago; bertan, langileen eta eskolako jantokirako gastuak sartzen dira, besteak beste (2002ko martxoaren 26ko 76/2002 Foru Agindua); horrekin, ikastetxe horietan ikasle horiek egotea erraztu nahi da. Deialdi hori Hezkuntza Zuzendari Nagusiaren uztailaren 17ko 597/2002 Ebazpenaz erabaki da, baina oraindik ere zabalik dago ikasturtean zehar sartzen doazen ikasleen beharrazanean erantzuna eman ahal izateko.

Horri gehitu behar zaizkio liburueterako, eskola-materialerako eta jantokirako laguntzen kontzeptuan urtero ematen diren bekak. Honakoak dira 2001-2002 ikasturteko datuak (eurotan adieraziak):

IKASTETXE PUBLIKOAK		ITUNPEKO IKASTETXEAK	
Jantokia	Ekipamendua eta eskola-materiala	Jantokia	
Laguntzen kopurua: 4.976	Laguntzen kopurua: 582	Laguntzen kopurua: 236	
Batez besteko zenbatekoa: 331,73	Batez besteko zenbatekoa: 94,56	Batez besteko zenbatekoa: 229,97	
Gastu orokorra: 1.650.679,76	Gastu orokorra: 55.035,81	Gastu orokorra: 54.271,80	

Testuliburuak eta eskola-materiala eskuratzeko laguntzei dagokienez, guztira 118.967.869 PTA. egiten dute (715.011,29 euro).

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-

goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa planari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 16ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Puyo Rebollo jaunak galdera egin du eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa planaren gainean. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari dagokionez, hau da, galderaren hirugarren atalari buruz, honakoa esan daiteke:

1.- Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaien ondorioz abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua egun deuseza dela hartzen du oinarri galderak.

Hori horrela, argitu beharra dago lehenik eta behin, erabat baldintzatzen baitu eginiko galderei eman beharreko erantzunen edukia, ez direla oraindik ere irmoak Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua deuseza dela esanez eman duen epaia eta gai horri buruz izan diren beste epaiak; izan ere, ebazteko dauka Auzitegi Gorenak onartuko duen ala ez horri buruzko kasazio-errekurtsoa.

Beraz, aipatutako ebazpen judizialak irmoak izan arte, ez dago esaterik foru dekretua deuseza denik, eta, beraz, ez dago ezer egiterik foru dekretu hori aplikatuz onetsiriko administrazio-egintzei buruz.

2.- Azpimarratu beharra dago ezen Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak onetsiriko deialdiei dagokienez, hala Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan sartzekoak nola lanpostuak betetzekoak, betiere, bai abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua onetsi aurretik eta bai

ondotik, aplikatzekoak zitzaizkien lege eta erregelamenduei jarraikiz egin direla; legea, hain zuzen ere, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina da, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia.

Funtzio publikoari dagokionez, lege horrek izan du erregelamendu bidezko garapena: Nafarroako administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamendua, ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak onetsia. Lanpostuen betetzea arautzeko, berriz, erregelamendu mailako arauok eman dira: Nafarroako administrazio publikoan lanpostuak betetzeko Erregelamendua, azaroaren 6ko 215/1985 Foru Dekretuak onetsia; abenduaren 29ko 388/1997 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko departamentu eta erakunde autonomoen barranean, langileen mugigarritasunerako prozedura ezartzen duena; eta abuztuaren 12ko 130/1998 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuak betetzeko deialdietan aplikatuko diren merezimendu baremoak ezartzen dituena.

Horrenbestez, aipatutako arauak ezartzen dute zuzenean deialdien edukia, bai eta beste zenbait kasutan aplikatzekoak diren zenbait albo-arauk, eta deialdiaren oinarriak.

Beraz, kontuan hartuz abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuak ez duela kanpotik edo modu autonomoan arautzen funtzio publikoan sartzeko ezta lanpostuak betetzeko inongo sistemarik, ondorioa da ez dela inongo deialdirik onetsi dekretu horren garapen gisa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2002ko irailaren 25ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna

Félix José Puyo Rebollo foru parlamentariak galdera egin du Nafarroako Gobernuak 372/2000 Foru Dekretua garatzeko eginiko jarduketari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1.- 372/2000 Foru Dekretua oinarri hartuta tramitatu da departamentu honetan 2000-2001 aldirako lan eskaintza publikoan jasotako lanpostu hutsen betetzea –urtarrilaren 22ko 16/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen lan eskaintza hori, eta otsailaren 16ko 22. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen–, eta foru dekretu horretan oinarri hartuta, baita ere, ethezain eta liburutegiko arduradun izateko beste lanpostu huts batzuk.

Departamentu honen eskumenekoak diren lanpostu-betetzeak (irakasleak ez diren langileentzako barne mugikortasuneko deialdiak), 2000-2001 aldirako lan eskaintza publikoan ageri direnak.

Abenduaren 29ko 388/1997 Foru Dekretuari jarraikiz –Nafarroako Foru Komunitateko administrazio departamentu eta erakunde autonomoen barrenean, langileen mugigarritasunerako prozedura ezartzen du–, deialdi hauek tramitatu dira:

– Fisioterapeuta (lanpostu huts bat): Prozesu hau 2001eko apirilaren 5ean pertsonalki jakinarazi zitzairen interesdunei; deialdia ekainaren 15eko 231/2001 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (uztailaren 13ko 85. NAO).

– Administrari laguntzaileak (16 lanpostu huts bat): Deialdia apirilaren 17ko 149/2001 Foru Aginduaren bidez onetsi zen (apirilaren 30eko 53. NAO) eta ekainaren 26ko 246/2001 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (uztailaren 6ko 82. NAO).

– Begiraleak (14 lanpostu huts): Prozesu hau 2001eko apirilaren 10ean pertsonalki jakinarazi zitzairen interesdunei; deialdia ekainaren 15eko 268/2001 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (uztailaren 5eko 87. NAO).

B) Departamentu honen eskumenekoak diren lanpostu-betetzeak. (irakasleak ez diren langileentzako barne mugikortasuneko deialdiak), 2000/2001 aldirako lan eskaintza publikoan ageri ez direnak.

– eskolazainak (32 lanpostu huts): Deialdia azaroaren 13ko 428/2002 Foru Aginduaren bidez onetsi zen (abenduaren 10eko 149. NAO), aldatu egin zen otsailaren 27ko 41/2002 Foru Aginduaren bidez (martxoaren 13ko 32. NAO), eta apirilaren 25eko 125/2002 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (maiatzaren 17ko 60. NAO).

– liburutegiko arduradunak (13 lanpostu huts): Deialdia martxoaren 22ko 75/2002 Foru Aginduaren bidez onetsi zen (apirilaren 29ko 52. NAO) eta ekainaren 28ko 346/2002 Foru Aginduaren bidez ebatzi zen (uztailaren 31ko 92. NAO).

C) Barne mugikortasuneko prozesu horiek eginda, lanpostu hutsen berri eman zitzaion

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari, hark behar ziren lekualdatze lehiaketak eta oposizioak egin zitzaion, apirilaren 1eko 165/1996 Foru Dekretuaren 2. artikularekin bat; izan ere foru dekretu horretan ezartzen da foru administrazio organoek langile arloan nola banatuta dituzten eskumenak.

D) Departamentu honek eskaini baditu ere, bete, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak bete beharreko lanpostu hutsak, aipatu dugun 165/1996 Foru Dekretuari jarraikiz.

– Liburutegiko laguntzaile lanpostuak: Lekualdatze lehiaketaren deialdia: 2001eko irailaren 10ean emaniko ebazpenaz onetsi zituen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak (urriaren 3ko 120. NAO); 2001eko urriaren 29an emaniko ebazpenaz, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak lanpostu horiek bete gabe gelditu zirela deklaratu zuen (azaroaren 26ko 143. NAO). Oposizioaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko apirilaren 8an emaniko ebazpenaz onetsi zen (maiatzaren 1eko 53. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Zerbitzu orokorretako laguntzaile-gidari lanpostua: Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2001eko irailaren 24an emaniko ebazpenaz onetsi zuen lekualdatze lehiaketaren deialdia (urriaren 24ko 129. NAO); Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko martxoaren 11n emaniko ebazpenaz ebatzi zuen lehiaketa (martxoaren 27ko 38. NAO), eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuari ez zitzaion bat ere atxiki.

– Biltegiko urgazle-gidari lanpostua: Lekualdatze lehiaketaren deialdia 2001eko irailaren 10ean emaniko ebazpenaz onetsi zuen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak (urriaren 1eko 119. NAO); 2001eko urriaren 29an emaniko ebazpenaz, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak lanpostu horiek bete gabe gelditu zirela deklaratu zuen (azaroaren 26ko 143. NAO). Oposizioaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko maiatzaren 13an emaniko ebazpenaz onetsi zen (ekainaren 10eko 70. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Indusketako langileburu lanpostu bat: Oposizioaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2001eko urriaren 8an emaniko ebazpenaz onetsi zen (azaroaren 23ko 142. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Atezain (Idazkaritza Teknikoa) lanpostu bat: Lekualdatze lehiaketaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2001eko abuztuaren 1ean emaniko ebazpenaz onetsi zen (abuztuaren 13ko 98. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Bigarren mailako hargin-ofizial lanpostua: Lekualdatze lehiaketaren deialdia 2001eko urriaren 8an emaniko ebazpenaz onetsi zuen Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak (azaroaren 7ko 135. NAO); 2002ko urtarrilaren 14an emaniko ebazpenaz, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak lanpostu horiek bete gabe gelditu zirela deklaratu zuen (otsailaren 15eko 20. NAO). Oposizioaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko maiatzaren 13an emaniko ebazpenaz onetsi zen (ekainaren 10eko 70. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Peoi lanpostua: Iruñeko "Agroforestal" Bigarren Hezkuntzako Institutuari atxikitako 31.279 zenbakidun peoi lanpostua E mailako lanpostu hutsak lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdian sartu zen; deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko urtarrilaren 28an emaniko ebazpenaz onetsi zen (otsailaren 8ko 17. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

– Atezain lanpostuak: Lekualdatze lehiaketaren deialdia Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak 2002ko apirilaren 22an emaniko ebazpenaz onetsi zen (maiatzaren 17ko 60. NAO), eta, egun, tramitatzen ari da.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuan, 372/2000 Foru Dekretua indarrean sartu aurretik zeuden seinaleak bere horretan jarraitzen dute, ez dira aldatu.

3. 428/2001 Foru Aginduaren aurka bi errekurso aurkeztu ziren: bat ez zen onartua izan eta bestea ezetsi egin zen; biak ere Gobernuak 2002ko maiatzaren 27an hartutako erabakien bidez. 41/2002 Foru Agindua ere ezetsi egin zen Gobernuak maiatzaren 27an hartutako erabaki baten bidez.

4. Esan beharra dago, azkenik, departamentu honek duen informazioaren arabera, ez dela aipatutako deialdietatik bat ere deuseztatu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 2an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna

Puyo Rebollo jaunak galdera egin du eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa planaren gainean. Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak,

departamentuak eginikoei buruz, honakoa esan behar du:

GALDERA

1.- Plan hori betetzearren bide seinaleen arloan egindako jarduketan zerrenda, zehaztuta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak kontrolatzen duen nahiz hura titularra den autobide, autobia, errepide edo bide sareko seinaleetan egindako errotulazio-aldaketa guzti-guztiak.

2.- Arestian aipatutako jarduketa horietako bakoitzaren kostua eta kostu hori aurrekontuko zein lerrori egotzi zaion.

3.- Abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuan eta hura garatzeko ondotik emandako xedapenetan ezarritakoari jarraikiz Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko lanpostuak betetzeko egin diren deialdien zerrenda.

ERANTZUNA

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, kontserbazio programen barruan, errepideetako seinaleen ohiko berritzea eta egin berri diren errepideetan seinaleak ezartzea baizik ez du egin.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuarentzat ez da izan gain-kosturik; izan ere, Departamentuak, esan berri den bezala, ohiko lan gisa egin baitu seinaleak jartzearena.

Iruñean, 2002ko urriaren 4an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Osasun kontseilariaren erantzuna

Félix José Puyo Rebollo Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentariak 108/2002 zenbakidun galdera egin zuen 2002ko irailaren 3an, jakiteko zer jarduketa egin diren euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko ekintza-plana betetze aldera. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Galderaren lehenbiziko bi puntuei buruz, esan beharra dago Osasun Departamentuak ez duela jarduketarik egiten Foru Komunitateko autobide, autobia, errepide edo bide sareko seinaleen arloan, ez baitu horretarako eskumenik.

Azpimarratu beharra dago ezen Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Zuzendaritzak onetsiriko deialdiei dagokienez, hala Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan sartzekoak nola lanpostuak betetzekoak, betiere, bai abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua

onetsi aurretik eta bai ondotik, aplikatzekoak zitzaizkien lege eta erregelamenduei jarraikiz egin direla; legeak hauek dira hain zuzen ere: batetik, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuak onetsia, eta, bestetik, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko araubidea arautzen duena.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea arautzen duen legea garatu dute azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuak –Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzea eta lanpostuen betetzea arautu zuen– eta beste zenbait foru aginduk, non deialdietan aplikatuko diren merezimendu-baremoak ezartzen baitira.

Horrenbestez, aipatutako arauak ezartzen dute zuzenean deialdien edukia, bai eta beste zenbait kasutan aplikatzekoak diren zenbait albo-arauk, eta deialdiaren oinarriek.

Beraz, kontuan hartuz abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuak ez duela kanpotik edo modu autonomoan arautzen funtzio publikoan sartzeko ezta lanpostuak betetzeko inongo sistemarik, ondorioa da ez dela inongo deialdirik onetsi dekretu horren garapen gisa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko azaroaren 12an

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Galdera, fatxada publikoetako sinbolo frankistak kentzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix M^a taberna Monzón jaunak fatxada publikoetako sinbolo frankistak kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 25eko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix María Taberna Monzón jaunak galdera egin du fatxada publikoetako sinbolo frankistak kentzeari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

– Noiz kenduko ditu foru gobernuak fatxada publikoetako sinbolo frankistak, esate baterako Nafarroako Kutxan eta Gurutze Plazako institutuak daudenak?

Galderak argitu beharreko zehaztasun falta batzuk dauzka: izaera publikoa aitortzen dio Nafarroako Kutxaren fatxadari. Gobernuak, berez, ez du ezer esatekorik Nafarroako Kutxaren higiezinari buruz.

Gurutze Plazako institutuei eta beste batzuei buruz, esan beharra dago Nafarroako Gobernua Nafarroako sinboloei buruzko maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Legeaz loturik dagoela; izan ere, haren 6. artikulua aurreikusten du eraginik ez duela eraikin edo monumentu historiko-artistikoe-tan kokaturiko armarrietan edo, eraikin horietako apaindura eta dekorazioko zati finkoa direnak, materia hautsi edo objektua hondatu gabe kentzerik ez badago Hori dela eta, ondare-funtsetan gorde dira edo ez dira suntsitu sinbologia aldatu ez den objektu artistikoak, garai eta abagune historiko ezberdinetakoak.

– Gobernuaren ustez, beharrezkoa da sinboloen legea aldatzea sinbologia frankista erretiratze-ari ekiteko?

Ez.

– Zerri zor zaio ikurrina erretiratzeko interes eta ahalegina? Eta zerri oraindik dirauten sinbolo frankistak kentzeko interes eskasa?

Nafarroako sinboloei buruzko Foru Legea betetzeari, zeina Foru Parlamentuak onetsi baitzuen izen horrekin; izan ere, foru lege hori, antolamendu juridiko osoa bezala, loteslea da gobernu honentzat.

Foru lege horrek aurreikusten ditu Foru Komunitateko eraikin publikoetan agertu beharreko sinboloak, bai eta nola agertu behar duten ere.

Horien artean, ez dago aurreikusirik beste herrialde edo erkidegoetako banderak erabiltzea.

Zenbait eraikin edo objektutan sinboloak gordetzeari dagokionez, erantzunaren lehen atalean bildu dugu horri buruzko erantzuna.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2003ko urriaren 11n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Sakanako autobiarri eta hura mantentzeko kostuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Sakanako autobiarri eta hura mantentzeko kostuari buruz egindako galde-raren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 25eko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera bat egin du Sakanako autobiarri eta hura mantentzeko kostuari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Sakanako autobia ez zegoen irailaren 8an –igandea– ibilgailuak bertatik behar bezala ibiltzeko moduan.

Euriak putzu ugari eragin zituen, trafikorako oztopo izateaz gain arriskutsuak zirenak.

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Autobia horren mantentze lanek urtero zenbat egiten duten, kontzeptuak zehaztuta.

N-240-A autobiarren (Sakanako autobia) konserbazio arrunteko eta mantentze lanak “A-15 autobiarren (Iparraldeko autobia), N-240-A autobiarren (Sakanako autobia) eta N-1 errepidearen (Madril-Irun) konserbazio integrala” izenekoaren baitan dago; horren urteroko aurrekontuak 841.416,95 euro egiten ditu.

Honako kontzeptu hauetan erabiltzen da aurrekontu hori:

Kostu finkoak (langileak, makineria, instalazioak eta abar)	342.576,90 euro
Materialak (seinaleak, mugarriak eta abar berritzea)	48.080,97 euro
Segurtasuna eta osasuna	19.919,34 euro
Eragiketa bereziak eta aparteko jarduketak zoruetan, balizetan, neguko bideragarritasunean eta abarretan.	214.732,65 euro
Guztira	625.309,86 euro
G.G. eta B.I., %16	101.489,58 euro
Guztira	725.359,44 euro
BEZa, % 16	116.057,51 euro
Guztira	841.416,95 euro

– Putzurik ez sortzeko hobekuntzarik egiten ari al da?

Ez gara N-240-A autobia trazarura hobetzeko obrarik egiten ari. Haren trazarurak, plantan zein aurretiko bistan “AV-120” motakoaren ezau-garriak dauzka, eta guztiz indarrean dago gaur egun, 3.1-IC arauak ezarritako parametro guztiak betez. “Trazadura”

Ez dago inon jasota galtzadaren inongo tartetan ur-putzu ugari egiten denik. Ez dugu ere jasota trafikoa eragotzi edo arriskua sor lezaketen putzuak egon zirenik errepidean 2002ko irailaren 8an.

Autobia honetako zorua nahasketa bituminoso eta drainatzaile batek osaturik dago, eta horrek azaleko ura kanporatzea errazten du.

– Halakorik egitea aurreikusi al da? Hala baldin bada, zehaztu zer hobekuntza aurreikusi diren.

Ez dago aurreikusirik trazaduran inongo aldatarik egitea.

- Hustubideak hobetzen ari dira?

Ezponda eta fabrika-obren drainatze eta huste lan guztiak aldizka ikuskatzen dituzte zaintza zerbitzuek eta behar direnean garbitzen dira, diseinatu ziren garaian zuten xedea betetzen jarrai dezaten.

- Zehaztu zer neurri prestatu dituen Gobernuak autobia horretan arrisku-egoerak ekiditeko. Xehetasunez azaldu.

Arriskuak saihesteko neurriak, aurreikus zitezkeenak eta identifikatutakoak, proiektu eta erakuntza faseetan eta baita ustiaketa-fasean ere ezarri dira: litekeen trazadura onena diseinatzuz, behar bezala seinalatuz eta balizatuz, erabiltzaile-

ei informazioa emanez, kontserbazioa kontrolatzeko zentrotik arazoei arreta jarraitua emanez eta abar.

Bestelako arrisku-egoerak saihesteko neurriak ezartzeko, aldeztatik haiek identifikatu egin beharko lirateke, eta hori ia ezinezkoa da, besteak beste ondokoen mende daudelako: erabiltzaileak, eguraldi bereziki txarra, matxura mekanikoak, ibilgailuen egoera eta abar...; horiek banaka nahiz bat baino gehiago batera gertatuta.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 11n

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, 372/2000 Foru Dekretuaren deuseztasun-adierazpena ez argitaratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak 372/2000 Foru Dekretuaren deuseztasun-adierazpena ez argitaratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du 372/2000 Foru Dekretuaren deuseztasun-adierazpena ez argitaratzeari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Arestiko azalpenean aipatutako epaiaren aurka Gobernuak jarritako kasazio-errekurtsoak atzera bota dituzten arren, Gobernuak ez du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu nahi izan –epaiak horretara behartzen badu ere– 372/2000 Foru Dekretua nahiz hura garatzearen onetsitako zenbait erabaki baliogabeak direlako deklarazioa. Zergatik?

Lehenengo eta behin, argitu beharra dago 372/2000 Foru Dekretuari eta hura garatzeko araei buruzko epaien aurka Gobernuak jarritako kasazio-errekurtsoak ez dituztela atzera bota orain arte. Gai honetan emandako epaietatik bat ere ez da irmo bilakatu eta beraz, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen Legearekin bat, irmo ez diren bitartean ez dira argitaratu behar (72.2 eta 107.2 artikulua).

Are gehiago, halere: horiek argitaratzea ez dagokio gobernuari ez eta gobernuko ezin organori. Epai bat edo beste edozein ebazpen judizial argitaratzeko agintea daukana da ebazpena eman zuen justiziako organoa (Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen Legearen 107.2 artikulua, berriz). Beraz, organo judizialak epai horiek argitaratzeko emaniko despatxu edo edik-

turik jaso arte Gobernuak ez du ezer egiteko. Nafarroako Gobernuak ez dio uko egin inongo ebazpen judizialik argitaratzeari.

Beraz, arbuia behar da UPNren gobernu honi leporatzen zaion asmoa.

Eta horrelako asmorik ez dela izan garbi dago, arrazoi hauengatik: joan zen irailaren 6an jaso zen Administrazioarekiko Auzien Saileko idazkariaren ediktu bat, 372/2000 Foru Dekretuaren deuseztasuna deklaratu zuen 209/01 errekurtsuari buruzko epaia argitaratzeko aginduz.

Gobernuak, epaia irmoa ez denez, akats bat zela ulerturik ere, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman zuen irailaren 16an. Baina, berehala agindu zuen errekurtsio bat aurkeztea ediktu horren kontra. Lehenengo onartu zen, eta gero errekurtsioa aurkeztu zen.

Errekurtsoaren ondorioz, Administrazioarekiko Auzien Sailak autoa eman zuen adierazteko epai horren argitarapena ondorioz eta baliorik gabe uzten zuela epai irmoa ez zelako.

Auto hura Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 2002ko urriaren 2an, eta bertan irakurri daiteke osorik.

– Noiz bete asmo du agindu judizial hori?

Argitaratzeko despatxua edo ediktua ofizialki jasotzen denean.

– Jurisdikzio-aginteak errekerimendua egin arte itxoingo al du Gobernuak?

Berriz diogu Nafarroako Gobernuak ez duela aginterik ebazpen judizialik argitaratzeko. Ebazpen judizialaren organo egilea da behar dena agindu ahal duena. Hori gertatzean, legeari jarraikiz, ez da inolako errekerimendurik beharko Nafarroako Gobernuak ebazpen judizial irmoak bete ditzan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 15ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Nafarroan zenbat museo edo museo-proiektu dagoen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Nafarroan zenbat museo edo museo-proiektu dagoen jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 25eko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 16an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Nafarroan zenbat museo edo museo-proiektu dagoen jakiteko. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1.1. Nafarroako Gobernuaren titularitateko museoak eta museo-proiektuak.

- Nafarroako Museoa (Iruña)
- “Julio Caro Baroja” Nafarroako Museo Etnologikoa (Iratxeko Monasterioa, Aiegi)
- Karlismoaren Museoa (Lizarra)
- Arradako aztarnategi-museoa (Murillo el Cuende)
- Andelosko aztarnategi-museoa (Mendigorría)
- Arellanoko aztarnategi-museoa (Arellano)
- Ardoaren Museoa (Erriberri)

2. Nafarroako Gobernua partaide duen fundazio baten titularitateko museoak eta museo-proiektuak.

La Encarnación Museoa (Arrese Fundazioa, Corella)

- Julián Gayarre Etxe-museoa (Julián Gayarre Fundazioa, Erronkari)
- Oteiza Fundazioaren Museoa (Altzuza)

3. Nafarroako Gobernua partaide ez duen fundazio baten titularitateko museoak eta museo-proiektuak.

– Museo Etnografikoa (Mariscal D. Pedro de Navarra Fundazioa, Arteta, Olo)

– Tabarko Museoa (Jaureguizar Fundazioa, Tabar, Urraulgoiti)

– Ortiz –Echagüe legatua (Nafarroako Unibertsitatearen Fundazioa, Iruña)

4. Artzapezpikutzaren edo eliza-erakunde baten titularitateko museoak eta museo-proiektuak.

– Elizbarrutiko katedraleko museoa (Iruñeko Artzapezpikutza, Iruña)

– Orreagako Museoa (Orreagako Kolegiata, Orreaga)

– Tulebrasko Museoa (Tulebrasko Monasterioa)

– Xabierko Gazteluko Museoa (San Inazioaren ordena, Xabier)

– Deanaren Museoa (Tuterako Apezpikutza eta Udala)

5. Udal baten titularitateko museoak eta museo-proiektuak.

– Gustavo de Maeztu Museoa (Lizarrako Udala, eraikina Nafarroako Gobernuarena da)

– Zubietako Errotako Ekomuseoa (Zubietako Udala, edukia sozietate batena da).

– Muñoz Sola Bilduma (Tuterako Udala; bilduma Nafarroako Gobernuarena da).

– Pablo Sarasate Areto-museoa (Iruñeko Udala)

– Santiago Ramón y Cajalen Sortetxea (Petilla de Aragónko Udala).

– Uraren Museoa (Pitillasko Udala)

6. Entitate pribatu baten titularitateko museoak eta museo-proiektuak.

– Trenaren erakusketa (Castejóngo Asociación de Amigos del Ferrocarril, Castejón)

– Natur zientzien Museoa (Nafarroako Unibertsitatea, Iruña)

2. Nafarroako Gobernuak horietako bakoitzari 1995etik aitzina eginiko ekarpenak.

URTEA	Museoa	KONTZEPTUA	PEZETAK
1995	Artetako Etnografikoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Orreaga	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Iruñeko Elizbarrutiko Katedralekoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	-Berrikuntza lanak	4.707.112	
	Tulebrasko Monasterioa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Julián Gayarre Etxe-museoa, Erronkari	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Xabierko Gaztelua	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-5 lan zaharberritzea	1.752.760
	Lizarrako Gustavo de Maeztu	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Kultur ekintzetarako laguntzak	948.500
	-3 lan zaharberritzea	341.475	
	Corellako La Encarnación	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
1996	Artetako Etnografikoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Erakusketarako dirulaguntza	74.000
		-Biltzarretara joateko dirulaguntza	132.584
	Orreaga	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Iruñeko Elizbarrutiko Katedralekoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Tulebrasko Monasterioa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Julián Gayarre Etxe-museoa, Erronkari	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Hezetasuna kentzeko makina bat erosi eta paratzea.	193.364
	Xabierko Gaztelua	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-3 oihal zaharberritzea	749.253
	- 2 erakusketa egiteko dirulaguntza	1.203.440	
	Lizarrako Gustavo de Maeztu	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-3 lan zaharberritzea	749.853
	Corellako La Encarnación	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Kanpoko erakusketa iraunkorra	-Eskulturak eta haien maketak erostea	7.300.000
	Bertizen		
1997	Artetako Etnografikoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Museoa handitu eta zaharberritzea	2.530.620
	Orreaga	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Museoaren barnealdea gaurkotzeko 1. fasea	1.872.000
		-Faksimila prestatzea	897.000
	Iruñeko Elizbarrutiko Katedralekoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		Lapoblacióneko erretaula nagusiaren erakusketa, planetarioa	345.760
	Tulebrasko Monasterioa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Julián Gayarre Etxe-museoa, Erronkari	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Kultur ekintzetarako laguntzak	422.240
Xabierko Gaztelua	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
Lizarrako Gustavo de Maeztu	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
	-Kultur ekintzetarako laguntzak	567.000	
	-Termo-higrografo bat erosteko dirulaguntza	94.500	
	Corellako La Encarnación	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Zabalkunde orokorra	-Orri tolestuak argitaratzea	576.650
1998	Artetako Etnografikoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Museoko teilatua zaharberritzea	1.265.310
	Orreaga	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Museoa gaurkotzea	1.872.000
	Iruñeko Elizbarrutiko Katedralekoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Tulebrasko Monasterioa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
Julián Gayarre etxe-museoa,	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	

URTEA	Museoa	KONTZEPTUA	PEZETAK
1999	Erronkari	-Irratsaiorako dirulaguntza	119.000
		-Segurtasun sistamarako dirulaguntza	381.436
	Xabierko Gaztelua	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Lizarrako Gustavo de Maeztu	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Corellako La Encarnación	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		Aurreproiektua, proiektuaren 1. fasea	5.292.513
		-Material elektrikoa	5.000.000
	Zabalkunde orokorra	-Orri tolestuak argitaratzea	2.958.847
	Artetako Etnografikoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Kultur ekintzetarako laguntzak	175.000
	Orreaga	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-9 lan zaharberritzea	1.367.628
	Iruñeko Elizbarrutiko Katedralekoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Zaharberritzea	1.300.000
	Tulebrasko Monasterioa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Julián Gayarre Etxe-museoa, Erronkari	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Dirulaguntza gehitzea, defizitaren zati bat hartzeko	1.375.000
		-Kultur ekintzetarako laguntzak	295.104
	Xabierko Gaztelua	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Lizarrako Gustavo de Maeztu	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
-Kultur ekintzetarako laguntzak		700.000	
	-Material informatikoa erostea	2.070.578	
	-Segurtasun sistema paratzea	3.784.782	
Corellako La Encarnación	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
	2. faseari buruzko proiektua	773.222	
	-Proiektuaren aldaketak eta segurtasunari buruzko azterlana	2.319.063	
	-Lanak desmuntatu eta paketatzea	158.920	
Almadien buruzko erakusketa iraunkorra,	-Erakusketa aretoa egitea	2.041.909	
Burgi	-Almadiaren monumentua eraikitzea	1.954.351	
Kanpoko erakusketa iraunkorra, Muñoz Sola Bilduma	-Eskultura bat erostea	3.179.000	
	-Bilduma alokatzea	15.000.000	
Bertiz			
2000	Artetako Etnografikoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Orreaga	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
Iruñeko Elizbarrutiko Katedralekoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
	-Erakusketan ez dauden funtsak egokitzeko 1. faserako dirulaguntza	1.492.000	
Tulebrasko Monasterioa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
Julián Gayarre Etxe-museoa, Erronkari	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
	-Kultur ekintzetarako laguntzak	275.500	
Xabierko Gaztelua	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
Lizarrako Gustavo de Maeztu	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
	-Kultur ekintzetarako laguntzak	800.000	
Corellako La Encarnación	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
	-Elizako itaxurrak eta leihoa	881.327	
	-Lanak zaharberritzea	9.500.000	
Tabar	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000	
Muñoz Sola Bilduma	-Errentamendua	15.000.000	
Erakusketa iraunkorra	Misioneras de Cristo Jesús erakusketa soziokulturala gaurkotzeko dirulaguntza, Xabier	198.680	
2001	Artetako Etnografikoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Kultur ekintzetarako laguntzak	60.900
		-Kultur ekintzetarako laguntzak	87.000

URTEA	Museoa	KONTZEPTUA	PEZETAK
	Orreaga	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Iruñeko Elizbarrutiko Katedralekoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Tulebrasko Monasterioa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Julián Gayarre Etxe-museoa,	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
	Erronkari	-Kultur ekintzetarako laguntzak	305.430
		-Hilobiaren kontserbazioa	913.500
	Xabierko Gaztelua	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Euri uretarako hoditeria konpontzeko eta saneamendurako lanetarako dirulaguntza	4.401.256
	Lizarrako Gustavo de Maeztu	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Kultur ekintzetarako laguntzak	1.040.000
	Corellako La Encarnación	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
		-Muntaketa	3.848.435
		-Esku orria	165.787
		-Irekitzeko langileak	425.072
	Tabar	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	823.385
	Uraren Ekomuseoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	1.500.000
			EUROAK
2002	Artetako Etnografikoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Orreaga	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Iruñeko Elizbarrutiko Katedralekoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Tulebrasko Monasterioa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Julián Gayarre Etxe-museoa,	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Erronkari		
	Xabierko Gaztelua	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Lizarrako Gustavo de Maeztu	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Corellako La Encarnación	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Tabar	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Uraren Ekomuseoa	-Museoen arloko Lankidetza eta Laguntzarako hitzarmena.	9.015,18
	Zubietako errota		
	Muñoz Sola Bilduma	-Errentamendua	104.576,11

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 15ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña

Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko oinarrizko legedia bete dezan”

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak ondoko galdera egin zuen: «Galdera, Nafarroako Parlamentuak hartu zuen ondoko erabakia bete al den jakiteko: “Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko oinarrizko legedia bete dezan”.»

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko uztailaren 22ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 17an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabaki honi buruz: Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko oinarrizko legedia bete dezan. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua aparteko gaitasun intelektuala izatearekin loturiko hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleei hezkuntza erantzuna emateari buruzko legedia betetzen ari da. Honakoak dira erreferentziako arau oinarrizkoak: Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa eta apirilaren 28ko 696/1995 Errege Dekretua, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza antolatzen duena.

LOGSEK, 36. artikuluan, hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleei arreta egiteko normalizazio eta integrazio arauak ezarri zituen. Hala ere, ezarri zuen ikastetxeek, behin premia horiek identifikatu eta baloratu ondoren, behar diren curriculum egokitzapenak egiten dituztela. 696/1995 Errege Dekretuak, berriz, II. kapituluaren ezarri zuen aparteko gaitasun intelektuala izatearekin loturiko hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleei egiten zaien arretak eskola-maila ezberdinetarako helburu orokorretan ezarritako

gaitasunen garapen orekatua sustatuko duela. Aurrerago, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak, 1996ko apirilaren 24ko aginduaren bitartez, 1996ko apirilaren 26ko ebazpenaren bitartez eta 1997ko martxoaren 20ko ebazpenaren bitartez ikasle horiei eman beharreko hezkuntza erantzuna orientatzeko prozedurak ezarri zituen. Aipatu arau guztiak hezkuntza premia bereziak identifikatzeari eta curriculum-egokitzapenak egiteari buruzkoak dira, derrigorrezko eskolatzeko-aldia malgutuz nahiz malgotu gabe.

Nafarroak, izaera subsidiarioz, aipaturiko estatu mailako xedapenak ditu jarraitu beharreko arau, eta haiei buruzko arau propioak prestatzen ari da. Indarra duen legediaren arabera, bi eratakotan izan daiteke aparteko gaitasun intelektuala izatearekin loturiko hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleentzako hezkuntza erantzuna: curriculum egokitzapena, derrigorrezko eskolatzeko garaia zabalduz edo malgutuz, behar den egokitzapenarekin. Zabalitzean oinarrituriko curriculum egokitzapeneko kasuak hezkuntza premia bereziak antzeman eta identifikatu eta haiek baloratu ondoren curriculum egokitzapenak egiten dituzten ikastetxeetakoak dira; betiere Nafarroako Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroaren (NHBBZ) laguntza izan dezakete horretan.

Derrigorrezko eskolatzeko-aldia malgutzea proposatzen den kasu guztietan beharrezkoa da Hezkuntza Berezirako Unitate Teknikoak txostena ematea. Lehen Hezkuntzan, 1997-1998 ikasturteetik aurrera, 14 ikasleri derrigorrezko eskolatzeko-aldia malgutzeko neurria aplikatu zaie. Bigarren Hezkuntzan neurri hori 7 ikasleri aplikatu zaie 1996-1997 ikasturteetik hona.

Azkenik, aipatu beharra dago Nafarroako Gobernuaren hezkuntza bereziko beketarako deialdian aparteko gaitasunari lotutako hezkuntza premia bereziak dauzkaten ikasleak sartu direla, balizko onuradun bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduari 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 15ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Mendillorri liburutegi bat eta kultur areto bat eraikitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Mendillorri liburutegi bat eta kultur areto bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 22an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Mendillorri liburutegi eta kultur etxe bat eraikitzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak Mendillorri liburutegi publiko bat eraikitzeako konpromisoa hartu du,

Nafarroako Gobernuaren eta Iruñeko Udalaren artean Mendillorri Iruñeko udalerrian sartzeari buruz hitzartutakoaren arabera. Hitzarmen horretan esaten da azpiegitura horren eraikuntza "Nafarroako Gobernuaren politikaren arabera egingen dela".

Liburutegi publikoa egiteko oinarrizko proiektua eta proiektu exekutiboa Iruñeko Udalak egin ditu. Proiektua Arkitektoen Elkargoak ikus-onetsi du eta Iruñeko Udalak Nafarroako Gobernuari eskuratu dio; hartara, proiektu horren exekuzioa Nafarroako Parlamentuak 2003ko aurrekontu orokorrak onetsi zain geratzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 18an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Mendillorri Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Mendillorri Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Mendillorri Bigarren Hezkuntzako

ikastetxe bat eraikitzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak 1998ko apirilaren 1ean gune hau hirian biltzeari buruz sinaturiko konpromiso guztiak gauzatu eta betetzeko, aldizka, batzorde paritario batean, bi administrazioetako ordezkari eskudunak biltzen dira, eta, hartara, betetzeko dauden gaien jarraipen puntuala egiten dute. Azken bilera urriaren 8an egin zen, eta Gobernuak lehendakariordea izan zen bertako burua.

Hitzarmen horretan, besteak beste, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat eraikitzea dago, eta bertan adierazten da, epeari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren hezkuntza politikaren arabera egingen dela. Gaur egun, DBH eta Batxilergoko ikastetxe berriaren beharriaren programa taxutzen ari da. Esan daiteke ekitaldia bukatu aurretik

proiektua egiteko lehiaketa publikorako deialdia eginen dela.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxea eraikitzeo aurreikusi eta gorde zen lurzatia 16. poligonoko 356. zenbakikoa da, eta Mendillorriko goiko aldeko Uztarroze eta La Ermitako kaleen artean dago; 12.035 m² dauzka. Horren ondoan 164 zenbakiko lurzatia dago, Uztarroze eta Elkanoko Kontzejua kaleen artean. 2.559 m² dauzka eta, hirigintza ondorioei erreparatuta, balio anitzeko dotazioetarako moduan kalifikaturik dago. Hezkuntza eta Kultura Departamentua urratsak ematen ari da egungo kalifikazioa kendu eta hezkuntza dotazio-kotzat kalifikatzeko, eta aurrekoari gehitu nahi dio.

Eskura dauzkagun balizko ikasleen datuen arabera, hamar urteren buruan G eta A eredueta-ko 22 eta 24 talde bitarte eta D ereduko beste hainbeste hartzeko moduan egonen litzateke,

gehienez ere 1.440 ikasle hartzeraino. Hala eta guztiz ere, 2006-2007 ikasturtean egonen dira ikastetxea egotea justifikatzeko behar adina ikasle eta talde: G eta A ereduko 6 talde (161 ikasle) eta D ereduko 4 talde (94 ikasle).

Proiektua faseka eramanen da aurrera, eta denbora-segida batean garatzen joanen da, ikasturteak eta unitateak pixkanaka sartzen joateak ezartzen duen erritmoan, betiere honelako aurreikuspenetan aplikatzen diren datu demografiko eta erlazio estatistikoaren arabera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 21ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Mendillorri IV ikastetxe publikoa zabaltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Mendillorri IV ikastetxe publikoa zabaltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 25ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Mendillorri IV ikastetxe publikoko obrei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

1. Eginiko planifikazioaren arabera, Mendillorriko III eta IV ikastetxe publikoetan egiten ari diren obrak (haien inbertsio-aurrekontua 805.167,74 eurokoa da) datorren azaroaren bukaerarako bukatuta egon daitezke. Obra horien barnean honako ekintza hauek sarturik daude:

– Joko-pistak birmoldatzea.

– Eraikinetako bati gainetik solairu berri bat eraikitzea.

– Ikastetxearen instalazioetarako sarrera nagusia birmoldatzea.

– Jangela aldetik jolastoki batera zuzenean ailegatzeko irteera-ate bat irekitzea.

Joko pisten birmoldaketa ikasturtearen hasierarako amaitu zen. Lan hori, funtsean, honako honetan gauzatu zen: hiru pisten artean dauden desnibelak betetzen dituzten harri-lubetak hormigoiztatzea eta estaltzea; bereizketa-horma guztietan segurtasun-hesi metalikoak ipintzea; eta dauden hiru joko-pistak elkarrekin eta eraikinaren sarrera nagusiarekin lotzen dituen oinezkoentzako igarobidearen zabalera ia bikoizteraino handitzea.

Eraikin gorriari gainetik beste solairu bat gehitzeari dagokionez, honako instalazio berri hauek ahalbidetuko ditu:

– 56,9 metro koadroko 8 ikasgela.

– 28 metro koadroko 2 banaketa-gela.

– 21 metro koadroko bulegoa.

– 20,40 metro koadroko 2 komun.

– 9 metro koadroko komunikazio-eskailera.

– Metro koadro 1eko garbiketza-gela.

– Joan-etorriak (174,80 m²)

Azalera erabilgarria, guztira, 757,80 m²koa da, eta eraikitako guztizko azalera, berriz, 879,40 m²koa.

Ikastetxearen instalazioetarako sarrera nagusia birmoldatzeari dagokionez, horri ekiteko erabakia hartu da –nahiz eta proiektuan halakorik jasotzen ez zen– ikasleen sarrerak eta irteerak arintzeko xedez. Bai ekintza hori, bai barnealdeko jolastokira jangela aldetik zuzenean ailegatzeko irteera-ate berria irekitzea ere, eskola-orduetatik kanpo eginen dira, segurtasun-arrazoia direla-eta.

Ikasturtea hasi aurretik, irailaren hasieran, ukituriko zentroetako zuzendarierei eraikinaren segurtasunari buruzko idatzizko bermea eman zitzaion. Balizko eragozpenei dagokienez, handienak eta larrienak dira egiturak eraitsi, desmuntatu eta eraikitzearen ondoriozkoak; hain zuzen ere, horietatik dira udako oporretan gauzatu ziren ekintzak. Inola ere eskatu ezin dena da ikastetxeetan egin beharreko obra guztiak uztail eta abuztuan egitea, hori ezinezkoa baita.

3. Obren atzerapena arrazoi-multzo baten ondorioa da, eta arrazoi horiek ezin zaizkie inola ere departamentuko zerbitzu teknikoei egotzi, arduraz eta aurreikuspenez jardun baitute. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aurreikusia zeukan orain abian den instalazio-handitzea eta, horregatik, eraikinaren egitura prest utzi zen, ikastetxerako proiektu orokorrari jarraikiz. Beste kontu bat da jardueraren fase hau gastua banatzearen atzeratzea, Foru Komunitateko ikastetxeetan egin beharreko obra guztien planifikazioaren arabera.

Mendillorri III eta Mendillorri IV ikastetxe publikoen eraikina handitzeko arkitektura-proiektua egitea agintzeko oinarri gisa hartu beharreko beharizanen programa 2001eko azaroan zehaztu zen. Alabaina, 2002ko Nafarroako Aurrekontu Orokorra onetsi ez izanak eta horren ondorioz 2001eko aurrekontuak luzatu izanak administrazio prozesu guztiak gerarazi zituen, oro har. Hala eta guztiz ere, proiektua prestatze hutsa, jarduera material hori, ez zen gerarazi. Hezkuntza zuzendari nagusiaren martxoaren 5eko 139/2002 Ebaz-

penaren bitartez, beharizanen programa eta baldintzen orria onetsi ziren eta proiektuaren prestaketa esleitu zen. 2002ko martxoaren 15ean proiektua Inbertsio Zerbitzuari entregatu zitzaion, eta egun hartan bertan obra-lizentzia eskatu zitzaion Iruñeko Udalari.

Hezkuntza zuzendari nagusiaren martxoaren 20ko 216/2002 Ebazpenaren bitartez, proiektua onetsi eta obra-lehiaketa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agindu zen. Aurreikusi bezala, Kontratazio Mahaia apirilaren 18an bildu zen, 12:00etan, eta lizitatzailerik ez zegoela ikusi zen. Hezkuntza zuzendari nagusiaren apirilaren 18ko 310/2002 Ebazpenaren bidez, lehiaketa lehiatzailelerik gabeko deklaratu zen.

Egun hartan bertan, hiru eraikuntza-enpresari gonbita luzatu zitzaion, eta publikotasunik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitzeko espedienteari ekin zitzaion. Maiatzaren 2an (obren udal lizentzia eman zen egunean bertan), Kontratazio Mahaia beste bilera bat egin zuen, enpresa lizitatzailerik gabeko aurkezturiko dokumentazioa irekitzeko. Ikusi zenez, mota horretako obretarako eskaturiko sailkapenaren indarraldiaren muga apirilaren 25a zen; hau da, eskaintzak aurkezteko ezarri zen muga-eguna. Nahiz eta enpresak beste sailkapen berri bat eskatu zuen (zeukana baino goragokoa) Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Administrazio Kontratazioko Batzorde Aholku-emailean 2002ko martxoaren 27an, Batzordeko informatika-sistemak izandako akatsek espedienteak metatzea eragin zuten, eta horren ondorioz ezinezkoa izan zen dokumentazioa garaiz gaurkotea.

Beraz, publikotasunik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez esleitu behar izan zen kontratua, Nafarroako administrazio publikoaren kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 80.1c) artikulua xedatuaren babesean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 21ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Tuterako “Torre Monreal” deitutako eraikineko obrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Tuterako “Torre Monreal” deitutako eraikineko obrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 7ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Tuterako “Torre Monreal” deitutako eraikineko obrei buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Tuterako Udalak “Torre Monreal” izeneko eraikina finkatzeko eta haren barruko aldea berrantolatzeko proiektua igorri zuen, txostena eman zezan gobernua, ganbera ilun bezala turismo-xedeetarako erabiltzeko. Dorrea gaztelu babestuei buruzko 1949ko apirilaren 22ko dekretuan sarturik dago, eta kultur intereseko ondasuna da Espainiako ondare historikoari buruzko uztailaren 25eko 16/1985 Legeko bigarren xedapen gehigarriaren arabera.

Aurkeztutako dokumentazio aztertuta, eta ekainaren 25ean egindako ikuskapen bisitaren ondoren, Kultura Zuzendaritza Nagusiak-Vianako Printzea Erakundeak ondokoa adierazi zuen:

1. Duela berrogei urte dorrea finkatzeko egin ziren lanei esker gorde ahal izan da dorrea, nahiz eta egoera txarrean egon, finkatze lan horiek egiteko erabili ziren bitarteko eskasengatik; hori dela eta, berriz esku hartu beharra dago eraikina gorde nahi bada, orain planteatzen den bezala.

2. Proposatzen den erabilera berriari dagokionez, lehenengo eta behin ez da bateraezina dorrearen ezaugarriekin, baina bai dirudi bateraezina eskatzen dituen baldintza funtzionalengatik eta sarbideengatik, zeinak nekez txerta baitaitezke eraikinean, daukan tamaina txikiarengatik, piezen ezaugarriengatik eta altuerako garapenarengatik. Hori dela eta, esate baterako, ez da egokia sotoko ganberan komunak jartzea, zeren eta interes arkeologiko bereziko pieza bat baita; ez da egokia, ezta ere, kanpoko aldean planteatzen den arrapala, sarbidera iristea bideratu beharko lukeena, eraikinaren irudian duen eraginarengatik.

Bigarren solairu bat egiteari dagokionez, oroitidazkiak berak adierazten du lehendik halakorik ez omen zegoela.

3. Dorrearen zaharberritzeak haren egitura-ezaugarriei eutsi behar die; hori dela eta, forjatuak jatorrizko kokapenean berreskuratu behar dira –hain zuzen ere, solairuetan guztiz egokitu beharreko forjatuak (ezin da eraztun kalatua erabili), jatorrian ziren bezala–, eta horrek bidea emanen digu elementu eramaile berriak jarri behar ez izateko, proposatzen diren zutabeekin gertatzen denaz bestera.

4. Teilatu berriaren egitura, planoetan agertzen den bezala, pendizen konfigurazioa aldatzen du, eta horrek eragin berezia dauka planta altuko sabaiaren itxuran.

5. Barruko gainjanztea konpondu edo berrezartzeko, dagoen morteroak dauzkan material-eta ehundura-baldintzak bete beharko dira. Zoruetarako ere eraikinaren ezaugarriak hartu behar dira aintzat.

6. Horrelako eskaileretan, hain estuak direnatan, ez da eskudelik izaten; eskudel horiek oroitidazkian bai baina planoetan ez dira ageri. Edozein kasutan ere, proposatzen den kalibrea gutxitu egin beharko litzateke. Mailetarako aurreikusitako egitura motak zailtasunak dakartza erdiko zutabearen laguntzarik gabe ibiltzeko.

7. Gezi-leihoak hormatalez ixteak hormek barruko aldetik daukaten itxura aldarazten dute, hain zuzen ere horrelako gotorleku baten bereizgarri direnak.

8. Ez da egokia teilatuaren gainean edo leihoetan klimatizazioarako instalazioak jartzea.

9. Kanpoko urbanizazioa finkatu eta konpontzeko planteatzen diren jarduketei dagokionez, ez dugu inongo erreparorik.

Aurreko guztia dela eta, finkatze lanak eta kanpoko urbanizazioa konpontzeko lanak baimen badaitezke ere, aurkeztutako proiektua aldatu egin beharko da dorrearen zaharberritzeari eta egokitzeari dagokionez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 25ean

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, VW Navarra-ko inbertsioari, enplegua sortzeari eta Nafarroako Gobernuak eginiko ekarpen ekonomikoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak VW Navarra-ko inbertsioari, enplegua sortzeari eta Nafarroako Gobernuak eginiko ekarpen ekonomikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du VW Navarra-ko inbertsioari, enplegua sortzeari eta Nafarroako Gobernuak eginiko ekarpen ekonomikoei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagoitia Ripoll andrearen erantzuna.

– PAD02262 esped. Industria zuzendari nagusiak 2000ko urtarrilaren 20an emaniko ebazpena-

ren bidez, 2.319.032,12 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 15.649.254,74 euroko inbertsio baten gainean, eta 1.237.483,92 eurokoa, berriz, 547 lanpostu finko sortzeagatik. Laguntza horiek 2000ko urtarrilaren 20ko ebazpen horren bidez ordaindu ziren.

– PAD02583 esped. Industria zuzendari nagusiak 2001eko abenduaren 31n emaniko ebazpenaren bidez, 4.928.299,26 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 41.912.595,03 euroko inbertsio baten gainean. Dirulaguntza hori 2004an ordaintzea aurreikutsi da.

– PAD03473 esped. 2000ko martxoaren 3an aurkeztutako instantzia baten bidez enpresak laguntzak eskatu ditu inbertsio plan berri baterako. Oraindik ez da inolako laguntzarik eman horretarako, Europako Batzordeak laguntza horiek emateari buruz hartu behar duen erabakiaren zain gaudelako.

Iruñean, 2002ko urriaren 25ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria Nuria Iturriagoitia Ripoll

Galdera, nekazaritza-ustiategi txikien egoerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak nekazaritza-ustiategi txikien egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak abeltzaintza-ustiategiaren egoerari buruz galdetu eta idatzizko erantzuna eskatu du. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Azken 12 hilabetetan bilera batzuk izan dira, hainbat mailatan (Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko teknikariak eta zuzendaria, Ingurumen zuzendari nagusia eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria) eta hainbat mintzakiderek (Nekazaritza, Abeltzaintza, eta Osasun departamentuak, udalak, abeltzainen sindikatuak, Abeltzaintzako ITG, Udala eta

Kontzejuen Federazioa, teknikari independenteak).

2002ko ekainaren 7an eta urriaren 21ean bilkura bateratuak egin ziren UAGN eta EHNE sindikatuekin, Osasun Departamentuarekin eta Udala eta Kontzejuen Federazioarekin, Nafarroako Gobernuarekin, abeltzaintzako ustiategiaren egoera arautzeko onetsi behar duen foru dekretuaren azken testua adosteko behin betikoz.

UAGN, EHNE eta APA abeltzainen elkarteek kezka adierazi dute haiekin mintzatu garenean.

Aurreko galderetan erantzun dugunetik ondorioztatu daiteke gobernuak jaso dituela zenbait erakunde publiko eta pribatuen iritzia gai honen inguruan. Bestalde, Nafarroako Gobernuaren asmo bakarra da ekoizpenarekin, kasu honetan abeltzaintzarekin, zerikusia duten afera ekonomiko eta sozialetarako irtenbide integratuak topatzea, bai eta ingumenean duten eraginari begira, Rioko 1992ko Konferentzian ezarri zen garapen jasangarriak ezarritakoaren ildoan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria, Javier Marcotegui Ros

Galdera, babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioa aldatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak babes ofizialeko etxebizitzaren moduluaren prezioa aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko urriaren 31n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera bat egin du etxebizitza alorreko jarduketara babesgarrietan aplikatuko den 2002ko moduluaren igoerari buruz eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legeko 45.1 artikuluen eraginei buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

1. Lehenbizi, esan beharra dago higiezinaren sustapenaren izaera ikusita, etxebizitza babestuetan prezio berriak ezartzearen eragina ez dela berehalakoa izanen; izan ere, epe bat iraunen du. Dagokigun kasuan, gutxienez 4 hilabete gehiago itxaron beharko genuke modulua gaurkotzeari buruzko 2/2002 Foru Legeak daukan eragina behar bezala baloratzeko. Epe horretan, 2002ko maiatzaren ondoko eta 2002-12-31 baino lehenagoko eskariak kalifikatuko dira, hori baita aipatu legean 2002rako aurreikusitako moduluaren balioak eragina izanen duen epea.

Parlamentu-galderari 2002ko urria bukatu baino lehen erantzun behar zaionez, ordea, azken urteetan maiatzetik urrira kalifikaturiko etxebizitzaren kopuruari buruzko taula erantsi dugu.

Maiatza - Urria alde baterako kalifikazioak

URTEA	BOE	PTB	GUZTIRA
1998	781	16	797
1999	797	1	798
2000	288	22	310
2001	420	32	452
2002 (urriaren 25era arte)	285	110	395

Espero dugu 2002ko hurrengo hileetako kalifikazioen kopurua oso handia izatea, halako moduan non urte horretan guztian 2.000 etxebizitzatara iritsiko den, zeren eta kalifikatzeko baitaude, ukituekin hartutako betebeharren arabera, 546 etxebizitza, Buztintxuri eta Arrotxapeako (Iruña) lurzoruko lehiaketakoak, 372 etxebizitza Sarrigurenen UGT eta CCOO sindikatuei loturiko enteei lagatako lurzoruan egitekoak eta beste 363 etxebizitza, zeinen aldi baterako kalifikazioa emateko eskariak aurkeztu bai baina oraindik ez diren ebatzi. Gainera, taulan ikus daitekeen bezala, 2002ko urriaren 25era arte, 2000ko emaitza guztiak gaudituz dira. Data horri dagokion kopuruari gaur egun tramitatzen ari diren kalifikazio espedientei dagokiena batuz gero (363 eskari), % 80 gaudituko zituen 2001ean ebatzitako espedienteen kopurua.

2. Honakoak izan dira babespeko eraikuntza berriko etxebizitzaren arlorako, etxebizitzak zahar-

berritzeko eta gizarteratzeko etxebizitzak egiteko eman diren laguntzak:

URTEA	EUROAK
1996	35.061.677
1997	41.583.009
1998	36.989.808
1999	24.663.313
2000	26.278.654
2001	21.834.698

1999, 2000 eta 2001. urteetan baliabideetan izaniko jaitziera, funtsean, Nafarroako Gobernuak laguntzen dituen maileguren interes tasa jaitsi izanari zor zaio.

3. Nafarroan etxebizitzak eraikitzearen erritmoa oso handia izan da. 5.742 da azken 4 urteetan (1998-2001) bukatutako etxebizitzaren batez bestekoa. 1994an Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/94 Foru Legea onetsi zenetik gaur arte 48.468 etxebizitza eraiki dira; horietatik, % 31,09 babes ofizialeko araubideren baten arabera izan dira. Lege horrek aurreikusten zuen udal planek gutxienez babes ofizialeko etxebizitzetarako egoitza ahalmen berriaren % 15 gorde behar zutela. Uste izatekoa da Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko proiektuan sarturiko % 50eko aurreikuspen berriarekin, ehunekoa nabarmen haziko dela.

4. Aurreko galderari emandako erantzunaren arabera, datozen urteetarako baliabide ekonomikoak etxebizitza planean eta epe ertaineko plan ekonomikoan aurreikusitakoak dira, bai eta arau indarduna babes moduren baten peko etxebizitzaren dirulaguntzetan aplikatuz ondorioztatzen diren eskubideen arabera gaitu behar direnak ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

Galdera, Mendillorriko IV. eta I. faseen ondoan errepidea bikoizteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Mendillorriko IV. eta I. faseen ondoan errepidea bikoizteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Mendillorriko IV. eta I. faseen ondoan errepidea bikoizteari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Ba al du Nafarroako Gobernuak azterlanik jakiteko zenbat trafiko eta zenbat zarata eraginen duen aipatu bikoizketak? Hala baldin bada, errespetatuko al ditu legeak ezarritako mugak eta, horrenbestez, inguru horretako berrehun etxebizitza baino gehiago zaratetatik babesteko banda?

Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Fisika Departamentuko Akustika Laborategiari eskatu zion "N-135 errepideko trafikoak Mendillorriko etxebizitza eremuan, bidearen bikoizketaren inguruan, ekarriko duen ingurumenaren gaineko eragin akustikoa" gaitzat duen azterlan bat egin dezan.

Hauexek dira azterlan horren ondorio nagusiak:

"3. Asfalto drainatzailearekin eraikiz lortzen den efektua, zarata gutxitzearena alegia, handiagoa da eraiki beharreko bi errei berrien zabaltzeak ekarriko duen soinu-areagotze arina baino.

"4. Soinu mailak 135/1983 Foru Dekretuaren V. kapituluko 21. artikuluan baimendutako altuenetik behera daudenez, ez da bidezkoa, gure ustez,, oztopo akustikoaren moduko neurri zuzentzaileak abiaraztea.

2. Ba al da aipatu errepideak jasaten duen eta ustez jasanen duen trafikoari buruzko azterlan zehatzik, bikoizketa justifikatzen duenik alegia?

Bide horren bikoizketa Iruñeko udal planean aurreikusitako jarduketa bat da, jendaurrean jarri zena eta behin-behinekoz onetsi zuena Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak. Jarduketa hori gauzatu da "Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren eta Iruñeko Udalaren arteko hitzarmena, 2002ko martxoaren 1ekoa, Iruñeko bide sarearen sarbideak eraiki eta berritzeko".

3. Zergatik ez da erabaki errepidea ezkerrean bikoiztea –garatu gabeko lurak izaki–, bizilagunek ahalik eta zaratarik gutxien pairatzeko eta sei metroko berdegunea –zuhaitz-ilara eta guztihartu behar ez izateko?

Bi arrazoiengatik: Tejeriako glorietako irteeraren hasierako tartearen iparraldean eraikinak daudelako, eta trazadura baldintzatzen dutelako, bai eta dauden erreiei ahalik eta probetxu gehien ateratzeko irizpidea dela-eta.

Proiektaturiko jarduketaren bidez errepide tarte hori hiri bide bihurtu nahi da, eta trafikoaren abiadura moteldu glorietaren baten bidez.

Horri eta zoladura drainatzailea erabiltzeari esker, eraikinen gaineko eragin akustikoa ez da areagotuko, arestian aipatutako eragin akustikoaren gaineko azterlanean agerian geratu denez.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 30ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Legionelosiari aurrea hartu eta kontrolatzeko uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak Legionelosiari aurrea hartu eta kontrolatzeko uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 16ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak, 2002ko irailaren 3an, galdera egin du Legionelosiari aurrea hartu eta kontrolatzeko uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren betetzeari buruz. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Uztailaren 27ko 909/2001 Foru Dekretuak, 14. artikuluan, ezartzen du dekretu horretan aipatzen diren eta Foru Komunitatean dauden instalazioetan legionelosiaren prebentzio eta kontrol tratamenduak egiten dituzten langileek ikastaroak egin behar dituztela, Osasun eta Kontsumo Ministerioak, autonomia erkidegoek proposaturik berariaz homologatzen dituenak.

Osasun eta Kontsumo Ministerioak ez du oraindik argitaratu instalazio horien mantentze lanetan aritzen diren langileentzako prestakuntza ikastaroen homologazio prozesua ezarriko duen ministerio agindua. Halere, bada ministerio agindu baten proposamena, Osasun Sistema Nazionalaren lurralde arteko Kontseiluko Osasun Publikoaren Batzordean eraturiko ingurumen osasuneko ponentziaren oniritzia daukana, eta erantzun honi atxiki dioguna eranskin gisa.

Beraz, eta agindu hori argitaratzen ez den bitartean, Nafarroako Gobernuak ez ditu abiarazi legionelosiaren prebentzio eta kontrolerako ikastaro berariazkoak, eta horri gehitu behar zaio irakaskuntzako ezein entitatek ez dioela eskaera luzatu Osasun Publikoaren Institutuari, erakunde eskuduna den aldetik, ikastaro horiek antolatzen ministro agindua argitaratu baino lehen.

Aipatzekoa da ministerio aginduaren zirriborroak 3. artikuluan aurreikusten duela ikastaroak entitateek antolatu ahal izanen dituztela, hala nola ikastetxe publiko zein pribatuak, erakundeak, lanbide elkarteak eta administrazio publikoak.

Urriaren 15eko 298/2001 Foru Dekretuak, uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretua Nafarroan aplikatzeko arauak ematen dituenak, xedapen gehigarri bakarrean ezartzen du urtarrilaren 22ko 50/1996 Foru Dekretuak araututako Plagizidaren Establezimendu eta Zerbitzuen Erregistro Ofizialeko Zerbitzuen Atalean C adarra sortu dela Legionellaren kontrako tratamenduak egiten dituzten enpresak inskriba daitezela.

Adar horren erregistroaren kudeaketa Osasun Departamentuak egiten du.

Era berean ezartzen du legionella kontrolatzeko ikuskapen, garbiketa edo desinfekzio lanak egiten dituzten enpresak Nafarroako Foru Komunitateko erregistro horretan inskribatuko direla, Zerbitzuen Ataleko C adarrean hain zuzen.

Gaur arte erregistroan izena emateko zenbait eskaera jaso dira eta uko egin zaie, aurkeztutako dokumentazioak ez duelako egiaztatzen enpresei atxikitako langileek, erregistroko C atalean inskribatu beharra duten eragiketetan aritzen diren horiek, Osasun eta Kontsumoko Ministerioak autonomia erkidegoek proposaturik homologatzen dituen ikastaroak eginik dutenik, hori izaki bete beharreko baldintza, pestizidak fabrikatu, merkaturatu eta erabiltzeko osasun arau teknikoaren sei garren artikuluko laugarren puntuan xedatutakoa rekin bat. Arau horiek azaroaren 30eko 3349/1983 Errege Dekretuak onetsi zituen eta otsailaren 8ko 162/1991 Errege Dekretuak eta uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren 14. artikuluan hirugarren lerrokadak aldatu zituzten.

Beraz, gaur egun ez dago inongo enpresarik, ez Nafarroakoa ez Nafarroatik kanpokoak, inskribaturik pestiziden establezimendu eta zerbitzuen erregistro ofizialaren zerbitzuen ataleko C adarrean. Egoera hori ez da aldatuko harik eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak ministerio agindua argitaratu arte jarduketa horietan aritzen diren langileen prestakuntzarako ikastaroak homologatu eta baimentzeko irizpideak arautzeko.

298/2001 Foru Dekretuak ezartzen du uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuak indarra

hartu artean 2. artikuluan aipatu instalazioen garbiketa eta desinfekzio tratamenduak egin dituzten enpresek 2002ko uztailaren 28ra bitarteko epea izanzen dutela izena emateko. Urtebeteko epe horretan empresa horiek jardunean izan dira, eta administrazio zentralak, bere arioz, prestakuntza arautu behar duen ministerio agindurik ez denez argitaratu, ezarritako epearen luzapena eman du, epearen beraren erdia baino motzagoa; hortaz, inskripzioaren baldintza bete gabe jarduteko epea 2003ko urtarrilaren 28ra arte luzatu dela ulertzen da.

Urriaren 15eko 295/2001 Foru Dekretuaren 2. artikuluekin bat, legionelosiaren prebentzio eta kontrolaren arloko osasun ikuskaritza Osasun Zuzendaritza Nagusiaren Osasun Publikoaren Zerbitzuak betetzen du Osasun Publikoaren Institutuko zerbitzu teknikoaren bitartez.

Aurrerago dio Osasun Publikoaren Institutuak bere baliabide teknikoekin beteko dituela bere eginkizunak eta, beharrezkoa balitz, oinarrizko osasun laguntzako kasuan kasuko taldeen osasun profesionalen bidez.

Praktikan, legionelosiaren prebentzio eta kontrolaren arloko osasun ikuskaritza Osasun Publikoaren Institutuko Osasun Publikoaren eta Elikagaien Higienearen Ikuskaritza Ataleko langileek bete dute, zehazki bi teknikarik, lanaldi osoz eta beste bost teknikarik lanaldi partzialean, ikuskapen horiek Ataleko gainerako eginkizunekin bateratzen dituztela.

Langile horiek prebentzioari begira eginiko ikuskapenei esker egiaztatu ahal izan da aztertutako instalazio gehienek ez dutela mantentze-erregistrorik; hori da hain zuzen lehenbailehen konponbidea bilatu beharreko gaietako bat, eta halaxe eskatu da bisita horiek direla-eta igorritako txostenetan.

2001eko abenduan Nafarroan legionelosiaren prebentzio eta kontrolerako plana onetsi zen, Nafarroan legionelosiak eragiten duen eri eta hildakoen kopuruak jaitsi eta 909/2001 Errege Dekretua betetzeko helburuekin.

Planak bi atal ditu, lehendabizikoa zainketa epidemiologikoari eta broteen kontrolari buruzkoa da, eta legionelosi kasuen jakinarazpenaren aurrean bete beharreko ekintzak biltzen ditu.

Bigarren atala da prebentziorako osasun ikuskaritzarena, arau indardunak betetzen direla egiaztatzeko eta instalazioen eta haien funtzionamenduaren balizko arriskuak ebaluatzeko.

Ikuskatu beharreko entitateen kopurua handia denez, eta eritasunaz kutsatzeko joera establezimenduen erabiltzaileen baldintzen arabera denez eta eritasuna zabaldu dezaketen sintomak ez dutenez denek arrisku bera, beharrezkotzat jozen 2002ko jarduketaren artean lehentasunak ezarzteaz, honelaxe:

ENTITATE MOTA	IKUSKATU BEHARREKO ESTABLEZIMENDUAK 2002
Osasun zentroak, eriak gau eta egun dituztenak:	14
Bainuetxeak	1
Arriskuko egoitzak (zaharretxeak, gutxitu fisikoak, gutxitu psikikoak)	25
Ostalaritzako establezimenduak	25
Erabilera publikoko igerilekuak, ontzi klimatizatuak, hidromasajeak eta abar dituztenak	5
Hoztorreak eta lurruntze bidezko kondentsadoreak dituzten industria eta establezimendu publikoak	50
Kirol establezimenduak (kiroldegia etab).	10
Ikastetxeak	10
Foru administrazioaren establezimenduak	10

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 25ean

Osasun kontseilaria. Santiago Cervera Soto

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galdera horrek, egina dagoen moduan, gobernu honen jardunaren hainbat sektoretan du eragina eta, gaiari begiratuta, departamentu honen esku dagoen bakarra da Iruña-Frantzia errepidean, Luzaiden barna doan horretan (C-135) jaiegunetan izaten den trafiko astunaren erregulazioari dagokiona. Horren inguruan haxe daukagu esateko:

Bide Segurtasunaren Garapen eta Koordinazioarako Batzordeak, Nafarroako Gobernuak 2000ko otsailaren 21eko erabakiaren bidez sortutakoak, 2002ko apirilaren 16an eginiko bilkuran erabaki zuen, besteak beste, ponentzia teknikoak eratzea eginkizunak betetzeko edo batzordeak eskatutako azterlanak egiteko.

Hamar ponentzia tekniko eratu dira eta zehazki PT-7 delakoak -bertan ordezkaturik daude Trafikoko Zuzendaritza Nagusia, Nafarroako Trafiko Burutza Probintzialaren bidez, eta Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua, Herrilan, garraio eta Komunikazio Departamentua eta Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentua, eta ukitutako entitateak- helburu du zenbait bidetan ibilgailu astunen zirkulazioarako neurri murriztaileak, aldi baterakoak, aztertu eta proposatzea.

Une hauetan, ponentzia teknikoak azterlan hori prestatzen ari da, honako hauetan oinarriturik: bideen ezaugarrien azterketa, horietan izaten den trafiko mota, eta nazioarteko errepideetan, nazionaletan, autonomikoetan edo toki esparrukoetan aurreikusten diren gertaerak edo gorabeherak, bide zirkulazioan eragina izan dezaketanak.

Nolanahi ere, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak 2002ko otsailaren 11ko erabakiaren bidez, eta Nafarroako Gobernuak Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren ekimenez, 2002. urtean zehar trafikoa arautzeko neurri bereziak ezarri dira.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak, trafikoko eskumen betearazleak bere gain dituenak, Trafikoko zuzendariak emaniko ebazpenaren bidez ezartzen ditu urtero bere lurraldeko trafikoa arautzeko neurri bereziak, eta debekatzen du salgaien garraiorako 7.500 kilotik goragoko ibilgailuen zirkulazioa bide publikoetan barna larunbategi edo jaiegunen bezperetako gaueko hamarretatik hasita igandeetako edo jaiegunetako gaueko hamarrak bitarte.

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Frantzian ibilgailu horien zirkulazioarako ezarritako aldi baterako murrizketek eragin zuzena dute bide hauetako trafikoan: Iruña-Behobia, N-121-A errepidean, eta zeharka Oronoz-Dantxarinea, N-121-B errepidean eta Iruña-Frantzia, Luzaiden barna doan N-135 errepidean.

Nafarroako Foru Komunitateko bide horietan trafikoa berrantolatzeke eta zirkulazio pilaketarik gerta ez dadin A-7rekin bat egiten duen tokian, Behobian alegia, eta Dantxarinean eta Luzaiden eta ukitutako herrietako zeharkaleetan eragina gutxitzearen, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak 2002ko otsailaren 11ko ebazpenean ezarritako bide eta egunetako murrizketak proposatu dira. Murrizketa horien xedea da, ahal den neurrian, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Frantzian ezarritakoekin bat etortzea, kontuan harturik bidena-ber herri nagusietan aurreikusitako gertakizunak, horien zeharkaleetan trafiko pilaketak gertatu ahal diren kasuan.

Ondorio gisa, arauen ikuspuntutik, salgaien garraiorako 7.500 kilotik gorako ibilgailuetarako Iruña-Luzaide N-135 errepidean ezarri diren murrizketen tratamendua N-121-B ezarritakoekin

duten berbera da. Bestalde, ikuspuntu operatibotik, bide horietan dauden murrizketekin batera, zaintza berezia betetzen dute Foruzaingoak eta Guardia Zibilak, arauak bete daitezen, eta Nafarroako Gobernuako Komunikazio Zerbitzuak ere informazioa eskaintzen du horri buruz komunikabideen bitartez. Osagarri gisa, NA-30 eta N-121-A errepideetan mezuak luzatzeko paraturik dauden paneletan agerrarazten da murrizketei buruzko testua, denbora errealean.

2002. urtean, guk dakigula ez da gorabehera handirik izan bide horietan zirkulazioaren murrizketekin batera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 17an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

HEZKUNTZA ETA KULTURA DEPARTAMENTUAREN JARDUKETAK EKIALDEKO PIRINIOETAKO IBARRETAN (2000-2002)

KULTURA

1. Kultur ekintza. Ekialdeko Pirinioetako Ibarretako jarduketa nabarmenenak 2000-2002 epean hauexek izan dira:

– Kultur etxea eraikitzea Auritzen.

Eskualde osoko biztanleentzako kultur ekipamendua da, eta hemendik gutxira mustuko da.

Kostua, osotara, 200 milioi ingurukoa izan da, eta Nafarroako Gobernuak ordaindu du horren % 75.

– Kultur zabalkundeko programak.

Haien ezaugarri soziogeografikoak direla eta, Ekialdeko Pirinioetako Ibarretan dira zerbitzuaren kultur zabalkundeko programek eragina handiena duten Nafarroako eskualdeetako bat, eranskinean zehazturik ageri den bezala. Laburturik, 2000-2002 epean zehar izandako esku-hartzeak hauek izan dira:

Udaberriko bira: 37 saio 37 herritan

Cultur: 69 saio 17 herritan

Correpueblos: 26 saio 26 herritan

Udazkeneko bira: 32 saio 32 herritan

Artea eta Kultura 24 saio 6 herritan

2000. urtea

Udaberriko bira:	Arloa	Azpiarloa	Taldea
Auritz	Folklore	Dantza	DUGUNA FANFARREA
Erro (Aurizberri)	Folklore	Dantza	OBERENA DANTZA TALDEA
Burgi	Folklore	Dantza	AITZINDARI DANTZA TALDEA
Ezkaroze	Folklore	Fanfarrea	MUTHIKO ALAIK FANFARREA
Garralda	Musika	Ganbera	PLAZATIK SALARAT
Jaurrieta	Folklore	Dantza	AZKOIENGO DANTZA TALDEA
Luzaide	Musika	Abesbatza	OBERENA ABESBATZA
Otsagabia	Musika	Folk	ERRAMUN MARTIKORENA
Orbaitzeta	Musika	Ganbera	SERENATA HIRUKOTEA
Oroz-Betelu	Zinema		MOVILCINE
Erronkari	Musika	Ganbera	NOVARUM HIRUKOTEA
Uztarroze	Musika	Ganbera	JOSÉ LUIS ECHECHIPÍA/LAUDA LAUKOTEA

Cultur	Taldea
Agoitz	MUTHIKO ALAIK FANFARREA AITZINDARI DANTZA TALDEA LARRATZ DANTZA TALDEA
Izaba	ANTONIO ETA ISMAEL LOPERENA JOSÉ LUIS ECHECHIPÍA, ORGANO/LAUDA LAUKOTEA, AHOTSA OSCAR CANDENDO
Irunberri	DUGUNA FANFARREA NAFARROAKO HERRI KIROLEN FEDERAZIOA
Luzaide	ARDANBERA FANFARREA AMAIUR DANTZA TALDEA
Otsagabia	DUGUNA FOLKLORE TALDEA NAFARROAKO HERRI KIROLEN FEDERAZIOA (BI SAIO) NUMIDIA ORTZADAR EUSKAL FOLKLORE TALDEA
Orreaga	MARNA GANBERA TALDEA ETA LA TRULLA DE BOZES PASSEMEZZO ENSEMBLE QUINTETO CLÁSICO RESONANCIAS
Erronkari	FERNANDO ASENSIO, TENOREA/MIGUEL SESMA, PIANO (ZORTZI SAIO) MAITE BEAUMONT, SOPRANO/PEDRO RODRÍGUEZ, PIANO MERCEDES SOTO, SOPRANO/MERCEDES GORRÍA, MEZZOA SCHOLA CANTORUM
Uztarroze	JOSÉ LUIS ECHECHIPÍA RAÚL DEL TORO, ORGANO

Correpueblos:	Arloa	Taldea
Abaurregaina	Antzerkia	TEATRO BAJO LA ARENA
Erro	Zinema	MOVILCINE
Espartza-Zaraitzu	Zinema	MOVILCINE
Esteribar (Larrasoaña)	Antzerkia	EN LA LONA
Erro (Mezkiritz)	Zinema	MOVILCINE
Artzibar (Nagore)	Zinema	MOVILCINE
Nabaskoze	Zinema	MOVILCINE
Urzainki	Antzerkia	EN LA LONA
Bidankoze	Zinema	MOVILCINE

Udazkeneko bira:	Arloa	Azpiarloa	Taldea
Auritz	Musika	Abesbatza	SINE NOMINE MUSIKA TAILERRA
Burgi	Musika	Abesbatza	LA ASUNCIÓN ABESBATZA
Garralda	Musika	Ganbera	MARNAY LAUKOTEA
Izaba	Musika	Ganbera	CHAIKOWSKY SEIKOTEA
Jaurrieta	Musika	Abesbatza	OBERENA ABESBATZA
Luzaide	Zinema		MOVILCINE
Elo	Musika	Ganbera	HUMMEL QUARTET
Otsagabia	Musika	Ganbera	PLAZATIK SALARAT
Orbaitzeta	Musika	Ganbera	ROBERTO CASADO, FLAUTA/ AINARA MORENO, ARPA
Erronkari	Antzerkia		EL SILBO VULNERADO
Urrotz	Folklore	Dantza	ORTZADAR EUSKAL FOLKLORE TALDEA

Arte eta Kultura	Arloa	Azpiarloa	Taldea
Agoitz	Musika	Abesbatza	ASKETA ABESBATZA
	Musika	Gitarra	GUITARRAS MÁGICAS
Irunberri	Antzerkia	Txotxongiloak	GUS MARIONETAS
	Musika	Kantua	MAITE BEAUMONT/PEDRO J. RODRÍGUEZ
	Erakusketa		AMIGOS DE LA HISTORIA DEL CARLISMO FUNDAZIOA
	Musika	Banda	IRUNBERRIKO UDAL BANDA
	Musika	Gitarra	GUITARRAS MÁGICAS
	Antzerkia	Haurrendako	KOLLINS CLOWN

2001. urtea

Udaberriko bira:	Arloa	Azpiarloa	Taldea
Erro (Aurizberri)	Antzerkia		LA MADRIGUERA TEATRO
Burgi	Musika	Ganbera	GITARRA KLASIKOAREN BIKOTEA S. LARRIÓN/J. ELIZARI
Esteribar (Eugi)	Zinema		MOVILCINE
Garralda	Musika	Abesbatza	SCHOLA CANTORUM
Jaurrieta	Folklore	Fanfarrea	MUTHIKO ALAIK FANFARREA
Lizoain	Musika	Ganbera	ENSEMBLE CDJJJR
Luzaide	Zinema		MOVILCINE, S.L.
Elo	Folklore	Dantza	TXORI ZURI DANTZA TALDEA
Otsagabia	Antzerkia		LA MADRIGUERA TEATRO
Orbaitzeta	Musika	Ganbera	QUINTETO CLÁSICO
Oroz-Betelu	Antzerkia		XAROP TEATRO
Erronkari	Zinema		MOVILCINE

Cultur	Taldea
Agoitz	KONTALARIAK KULTUR ELKARTEA CARLOS PIÑUELA Y SU SON YERBABUENA
Izaba	CARLOS GARCÍA BERNALT PEIO AZKETA
Otsagabia	KONTALARIAK KULTUR ELKARTEA NAFARROAKO HERRI KIROLLEN FEDERAZIOA LARRATZ DANTZA TALDEA MIGUEL FERNÁNDEZ QUARTET
Orbaitzeta	TCHAIKOWSKY SEIKOTEA ZORONGO
Erronkari	FERNANDO ASENSIO, TENOREA/MIGUEL SESMA, PIANO (ZORTZI SAIO)

Correpueblos:	Arloa	Taldea
Abaurregaina	Antzerkia	T.E.N. PINPILINPAUXA
Artieda	Zinema	MOVILCINE
Espartza-Zaraitzu	Zinema	MOVILCINE
Esteribar (Larrasoaña)	Antzerkia	TEATRO BAJO LA ARENA
Erro (Mezkiritz)	Zinema	MOVILCINE
Nabaskoze	Zinema	MOVILCINE
Untziti	Antzerkia	TEATRO TROKOLO ETA OIHULARI KLOWN
Urzainki	Zinema	MOVILCINE
Uskartzeko	Antzerkia	T.E.N. PINPILINPAUXA
Bidankoze	Zinema	MOVILCINE

Udazkeneko bira:	Arloa	Azpiarloa	Taldea
Auritz	Folklore	Dantza	BAZTANGO DANTZARIAK
Erro (Aurizberri)	Zinema		MOVILCINE
Burgi	Antzerkia		COLECTIVO HUMO
Garralda	Zinema		MOVILCINE
Izaba	Antzerkia		GUS MARIONETAS
Jaurrieta	Folklore	Dantza	IRUÑA TALDEA
Luzaide	Musika	Ganbera	SAN BLAS ABESBATZA
Elo	Musika	Jotak	VOCES NAVARRAS
Otsagabia	Musika	Folk	JORGE SÁNCHEZ
Erronkari	Zinema		MOVILCINE

Artea eta Kultura	Arloa	Azpiarloa	Taldea
Agoitz	Musika	Banda	ALTSASUKO MUSIKA ESKOLAKO BANDA
	Musika	Ganbera	IRUÑEKO KATEDRALEKO KAPERAK
Irunberri	Antzerkia	Haurrendako	KOLLINS CLOWN
	Musika	Banda	IRUNBERRIKO UDAL BANDA
	Musika	Akordeioa	ACORDEONES HAUSPO ALAI
	Folklore	Jotak	ARMONÍA NAVARRA
	Antzerkia		KOLLINS CLOWN
	Antzerkia		TROKOLO

2002. urtea

Udaberriko bira:	Arloa	Azpiarloa	Taldea
Auritz	Musika	Abesbatza	SAN BLAS ABESBATZA
Erro (Aurizberri)	Musika	Folk	TILÍN TOLÓN
Burgi	Barietateak	Magia	BE MAGIC
Esteribar (Eugi)	Zinema		MOVILCINE
Garralda	Folklore	Dantza	HARIZTI
Izaba	Musika		JORGE SÁNCHEZ
Jaurrieta	Folklore	Dantza	IRUÑA TALDEA
Lizoain	Musika	Ganbera	XABIER RELATS, FLAUTA/ BERTRAND PIETU, GITARRA
Luzaide	Zinema		MOVILCINE
Elo	Barietateak	Magia	BE MAGIC
Otsagabia	Musika	Zelta	LIMERICK
Orbaitzeta	Musika	Abesbatza	SAN FERMIN ABESBATZA
Erronkari	Zinema		MOVILCINE

Cultur	Taldea
Otsagabia	EURITAN BLAI NAFARROAKO HERRI KIROLEN FEDERAZIOA IZEIA
Iratiko Oihana (Orbaitzeta)	ARDANBERA FANFARREA ARANGURENGO ABESBATZA
Orreaga	CARMEN MONTOYA, SOPRANOA/JULIÁN AYESA, ORGANOA DILETTANTI SINE NOMINE MUSIKA TAILERRA TRÍO GALANTE
Erronkari	JOSÉ LUIS SOLA, TENOREA/MIGUEL SESMA, PIANO (ZORTZI SAIO)

Correpueblos:	Arloa	Taldea
Bidankoze	Zinema	MOVILCINE
Nabaskoze	Zinema	MOVILCINE
Urzainki	Zinema	MOVILCINE
Erro	Zinema	MOVILCINE
Abaurregaina	Antzerkia	KONTALARIAK
Uskartze	Antzerkia	KONTALARIAK
Esteribar (Larrasoaña)	Antzerkia	SAMBHU TEATRO

Udazkeneko bira:	Arloa	Azpiarloa	Taldea
Otsagabia	Zinema		MOVILCINE
Auritz	Folklorea	Dantza	EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA
Erro (Aurizberri)	Musika	Trova	JORGE SÁNCHEZ
Jaurrieta	Musika	Abesbatza	NORA ABESBATZA
Izaba	Antzerkia		VALENTÍ PIÑOT
Garralda	Musika	Abesbatza	AIZAGA GANBERA ABESBATZA
Erronkari	Bariatateak	Magia	BE MAGIC
Lizoain (Beortegi)	Musika	Abesbatza	SCHOLA CANTORUM
Esteribar (Eugi)	Antzerkia		T.E.N. PINPILINPAUXA
Oroz-Betelu	Folklorea	Dantza	TUTERAKO UDALAREN DANTZA TALDEA
Luzaide	Folklorea	Dantza	EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA

2. Ondarea.

Orreagako Aterpetxea herriko etxe batean dago eta ez ditu betetzen bertan bizitzeko baldintza egokiak. Benefiziodunen etxea desmuntatzeari ekin zaio dagoeneko, eta ondoren eraikin hori egokituko da erromesentzako aterpetxea eta ostalaritzako zentroa izan dadin.

Eskualde horretako ondare historikoa zaharberritu eta sustatzea aztertzeari dagokionez, garaiak pixkanaka zaharberritzen ari dira; Donejakue Bidearen mantentze-lana modu egokian egiten da departamentuen arteko batzordearen bitartez, eta departamentu bakoitzak bere eskumenak harturik bere gain; Artziko Ama Birjinaren eliza zaharberritzeko proiektua Ebroren Konfederazio Hidrografikoari eman zaio, urtegiaren eraginak zuzentzeko neurrien artean sar dezaten; monumentu megalitiko eta ondare arkeologikoari dagokionez, azkenik, normaltasunez egiten da lana, eta horren inguruan dauden eskaerei erantzuna ematen zaie. Urizko dorrea erabilera publikorako berreskuratze-ko aukera aztertzen ari da.

Orbaitzetako arma ola partikular batena da eta udalen planez besterik ez dago. Udalak Vianako Printzearen aholkularitza du bere planetarako.

3. Liburutegiak.

Ekialdeko Pirinioetako Ibarren eskualdeak liburutegiak ditu Auritzen eta Aurizberrin. Nafarroako Gobernuak ahalegin berezia egin du Aurizberriko liburutegian, Berragu liburutegi zerbitzuen mankomunitatearekin lankidetzan, entitate horrek ekialdeko Pirinioetako ibarretako herri ia guztiak hartzen baititu bere baitan. Aurizberriko liburutegi publikoa, Nafarroako Gobernuak kudeaturiko liburutegien sarean sartua, Foru Komunitateko liburutegi publikoen proiektu berritzaileenetako bat gauzatzeko gunea da: teleliburutegia, informazioaren eta komunikazioaren teknologiez baliatzen den liburutegi hedapeneko eredia, 3.000 pertsonari baino gehiagori bide ematen diona liburutegi zerbitzuak eta informazio bitartekoak eskura izan ditzaten.

HEZKUNTZA

Garraldako ikastetxe publikoan eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako institutuan haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza irakasten dira, A eta D hizkuntza erduetan.

2000-01 ikasturtean, haur eta lehen hezkuntzan 69 ikasle egon ziren, 7 taldetan (10 ikasle baino gutxiago taldeko, batez beste). Ikasle horiekin 13 irakasle aritu ziren, pedagogia terapeutikoko bat, logopeda bat eta orientatzaile bat barne,

eskualdeko beste ikastetxe batzuetan ordutegia osatzen zutena; horiei erlijio irakasle baten 16 orduak, eta horrek 6 ikasleko ratioa ematen digu irakasle bakoitzeko. 2001-02 ikasturtean eta hezkuntza maila horietan beraietan, 7 talde horiek iraun zuten, baina ikasle kopurua txikixeagoa izan zen, guztira 63 izan baitziren, hau da, 9 ikasle batez beste talde bakoitzean, aurreko ikasturtean izandako irakasle kopuru berarekin (hau da, 5 ikasle baino gutxiagoko ratioarekin irakasle bakoitzeko).

DBHn, 2000-01 ikasturtean 59 ikasle izan ziren 5 taldetan (12 ikasle baino gutxiago talde bakoitzeko, batez beste), irakasleen 11,5 dedikazio osorekin, gehi erlijio irakaslearen 8 orduak eta lehen hezkuntzako irakasle espezialisten 15 orduko dedikazioa (5 ikasle baino gehixeago irakasle bakoitzeko). 2001-02 ikasturtean, maila horretan, matrikula 63 ikaslerena izan zen, 6 taldetan banaturik, beraz 11 ikasle baino gutxiago taldeko, batez beste. 13 edo 14 irakasle arduratu ziren ikasle horietaz (5 ikasle baino gutxiago irakasle bakoitzeko), taldeen arabera, eta horiei gehitu behar zaizkie orientatzailea eta erlijio irakaslea eta bigarren hezkuntzan ordutegia osatzen zuten lehen hezkuntzako irakasleak.

DBHko aukerako ikasgaien eskaintzari dagokionez, 2000-01 ikasturtean, DBHko lehendabiziko hiru mailetan ikasle guztiak izan zuten aukerako irakasgai bera: "Ipuin tailerra". DBHko 4. mailan A ereduko 6 ikasleek bi ibilbideren artean aukeratu ahal izan zuten: Biologia-Geologia eta Fisika-Kimika alde batetik eta Kultura klasikoa eta helduaroaren hastapena bestetik, eta aukerako irakasgaien arloan teknologiaren eta geografia ekonomikoaren artean hautatu ahal izan zuten. D ereduko 4 ikasleek biologia-geologia eta fisika-kimika izan zuten eta aukerako irakasgai marrazketa izan zen. 2001-02 ikasturtean aukerako irakasgaien eskaintza handitu zen lehendabiziko hiru mailetan eta "Matematika tailerra" gehitu zen. DBHko 4. mailan hiru ibilbide daukagu berriz eta aukerako eskaintza bikoia izatera pasatzen da ibilbide bakoitzean. A ereduko 4 ikasleen ibilbidea Fisika-Kimika eta Teknologia izan zen, eta aukerakoak, berriz, Marrazketa eta Biologia. D ereduko 5 ikasleek aukera egin ahal izan zuten bi ibilbide hauen artean: Biologia-geologia eta fisika-kimika edo kultura klasikoa eta literatura unibertsala, eta aukerakoak, berriz, Marrazketa eta Geografia Ekonomikoa izan ziren.

2002-03 ikasturteko matrikula da, guztira, 63 ikaslerena haur eta lehen hezkuntzan, 7 unitate-tan (9 ikasle taldeko). A ereduko 13 ikasleak bi unitatetan daude banaturik eta D ereduko 56 ikas-

leak bost unitatetan. Ikasle horietaz 14 irakasle arduratzen dira, eta horrek ematen duen ratioa da 5 ikasle baino gutxiagokoa irakasle bakoitzeko. Logopedak eta orientatzaileak eskualdeko beste ikastetxe batzuetan osatzen dute ordutegia.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzan 63 ikasle daude 6 unitatean (11 ikasle baino gutxiago talde bakoitzeko), eta horietatik A ereduko 21 ikasleak bi unitatetan daude eta D ereduko 42ak lautan, 14 irakasleren ardurapean (hau da, 5 ikasle baino gutxiago irakasleko); horiei erlijioaren irakaslearen 8 orduak, lehen hezkuntzako espezialisten 12 orduak eta orientatzailea gehitu behar zaizkie.

Aukeren eskaintzari dagokionez, DBHko lehen mailan, A ereduko 5 ikasleek eta D ereduko 10 ikasleek "Ipuin tailerra" aukerako irakasgaia dute; bigarren mailan, A ereduko 6 ikasleek eta D ereduko 11 ikasleek "Matematika tailerra" aukerako irakasgaia dute eta hirugarren mailan, A ereduko 6 ikasleek eta D ereduko 10 ikasleek aukerako irakasgai berria dute, "Informatika" alegia. DBHko 4. mailan D ereduko 11 ikasle daude eta fisika-kimikak 8 ikasle ditu, biologia-geologiak 4 ikasle, teknologiak 7 ikasle, bizi aktiboan hasteak 3 ikasle ditu, marrrazketak 7 eta geografia ekonomikoak 4 ikasle. A ereduan 4 ikasle daude, fisika-kimikak ikasle 1 du, biologia-geologiak ikasle 1, teknologiak 3 ikasle, bizi aktiboan hasteak 3 ikasle ditu, marrrazketak 4 ikasle.

Oro har, aukerako irakasgaia gutxienez 20 ikaslek aukeratzen dutenean eskaintzen da (249/1997 Foru Agindua). Hezkuntza eskaintza aukerako irakasgaiak sartuz handitzeak ikasleen egoera eta premia ezberdinei erantzun behar die, ikastetxeko antolaketa eta giza baliabideekin bat etorririk.

Kontuan hartzen badugu Garrantzako IP-DBHlan, azken urteotan, 5 eta 6 ikasleren ratioa egon dela irakasle bakoitzeko, Nafarroan batez besteko ratioa 12,1ekoa delarik, eta aukerako irakasgaiak ez direla inoiz ematen eskatutako gutxieneko ikasle kopuruarekin (ikasle bakar bat duten aukerako irakasgaiak ere badira), esan daiteke Garrantzako ikastetxeak, ikasleen egoera eta behar desberdinei erantzuteaz gain, diskriminazio positiboa jasotzen duela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 17an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Laguna Peña

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruz. Hona hemen Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

– Teknologia berriei buruzko berriazko plan bat egitea. Horrekin bat, Nafarroako Gobernuaren zentro teknologikoen deszentralizazioa egitea. Plan hori aplikatuko zaie bai toki administrazio publikoei bai plan berriaren bidez onurak lortu ahalko dituzten enpresei.

Eskualde horretarako teknologia berrien plan berriazko bat garatzeari dagokionez, esan beharra dago Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, beste departamentu batzuekin batera, abiaraziak dituela zenbait ekimen Foru Komunitatearen lurralde osoan eta horiek aurreikusirik dituztela edo izan ditzaketela jarduketak eskualde horretan.

Iruñean, 2002ko urriaren 7an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

a) Hiltegiak eraikitzeke edo daudenak egokitzeko, mendialdeko toki entitateek, Garrantzako udala barne, uztailaren 2ko 151/2002 Foru Dekretuan aurreikusitako dirulaguntzak jaso ahalko dituzte; dekretu horren xedea da abeltzaintzarekin zerikusi zuzena duten azpiegiturak eta ekipamendua, titularitate eta erabilera publikoak, sustatzen laguntzea.

b) Burguete bertako arrazako behorrak babes-teko laguntzak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak 2000ko irailaren 4an emaniko Foru Aginduan daude jasorik.

b) Ekoizpen estentsiboan hazten den behi piri-niarren arraza babesteko laguntzak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak 2002ko

martxoaren 18an emaniko Foru Aginduan dauden jasorik.

d) Bi arrazen kasuan jaso ahal dira laguntzak, halaber, hazitarako ar hautatuak erosteko, 1990eko irailaren 3ko Foru Aginduan jasorik dagoen bezala.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko urriaren 3an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Ignacio Javier Martínez Alfaro

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak galdera egin du Pirinioetako ibarretarako plan sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagaitia Ripoll andrearen erantzuna.

Orreagan erromesentzako aterpetxe bat egitearen inguruan esan beharra dago establezimendu horiek laguntzetatik kanpo daudela legez, ez direlako berez turismoko azpiegiturak.

Aurizberriko industrialdea handitzeari dagokionez, 1997. urtean Urrobiko industrialdea egiten hasi zen, udalak sustatua. Eskainitako lurzatiaren azalera 18.419 m²-koa zen, eta horietatik 10 daude saldurik, 17.266 m²-ko azalerarekin: 6 eraikiak, 2 eraikitzen ari diren proiektuekin eta beste 2 eraiki gabe.

2000. urtean, Urrobiko Partzuergoak plazaratu zuen industrialdeak dituen zenbait gabezia konpondu beharra; laguntza batzuk eman dira horretarako baina ez dira oraindik ordaindu horretarako dokumentazioa aurkeztu ez delako.

Industrialdea partzuergoak horren premia dagoela esatean handituko da.

Iruñean, 2002ko urriaren 10ean

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturriagaitia Ripoll

Osasun kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, 2002ko irailaren 19an, galdera egin du Pirinioetako ibarretarako plan

sozioekonomiko bat egiteari buruz onetsitako erabakiaren garapenari buruz; galdera urriaren 3an jaso zen departamentu honetan. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Aurizko osasun etxean eskaintzen den pediatria zerbitzuaz esan beharra dago 1996. urtera arte Aurizko oinarriko eskualdeko haurrendako osasun laguntza familiako sendagilearen esku zegoela, antzeko beste herri batzuetan bezalaxe.

Pediatriako espezialistak artatzea nahi izanez gero, eta familiako sendagileak horrengana igortzen zituenean, Uharteko osasun etxera joan behar izaten zen, bertan egoten baitzen Aurizko oinarriko eskualdeko pediatria.

Populazioak zerbitzu hori hobeki jaso zezan, 1996ko apirilaz gero pediatriak ateratzen dira osasun etxeetatik Nafarroako hainbat kontsultategitara joateko, eta osasun laguntza ematen den egunen kopurua eta ordutegiak aldakorrak dira, tokian tokiko premien arabera, hau da, pediatriako banakako osasun txartel estandarizatuen kopuruaren arabera. Eskualde honetan, Uharteko pediatria herri horretara joaten zen astean behin, arlo orokorreko erizainen laguntzarekin. Hauexek dira ondorio orokorrak:

AURIZKO KONTSULTA BATERATUA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 64 ordu urtean (ordubete eta bost minutu astean). Ordu eta erdi programatzen da. Haur/nerabeen osasun azterketak, pediatriak eta erizainak eginak.

AURIZKO ERIZAINZAKO BERTAKO KONTSULTA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 96 ordu urtean (ordubete eta berrogeita bost minutu astean). Ordubete 2 kontsulta programatzen dira. Ordu erdi bat egunean (2 egun astean). Haur/nerabeen osasun azterketak, erizainak eginak, + erizainaren jarraipena eskatzen duten prozesuak.

AURIZKO PEDIATRIAKO BERTAKO KONTSULTA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 45 ordu urtean (berrogeita bost minutu astean). Ordubete programatzen da. Haur eta nerabeen azterketak, pediatriaren jarraipena eskatzen duten prozesuetan.

AURIZKO PEDIATRIAKO KONTSULTA, ESKAERAREN ARABERAKOA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 100 ordu urtean (2 ordu astean). Bi ordu eta erdi programatzen dira. Gurasoek eskatutako kontsulta, haur eta nerabeen prozesu akutuetan, pediatriaren azterketa eskatzen dutenak.

AURIZKO SENDAGILEEN ETA PEDIATRIAREN ARTEKO KONTSULTA: 30 minutu programatzen dira jarraipena batera egin beharreko kasuez eta heziketaz mintzatzeko elkarrekin.

2000ko maiatzean nabarmen hobetu zen zerbitzu hori. Artatu beharreko populazioa oso han-

dia ez bada ere -209 haur- eta pediatriako espezialistaren denbora gehiago beharko ez balu ere, zuzentasuna eta eskuragarritasuna direla-eta aski arrazoi badago baliabideak handitzeko, eta hala egin da; hortaz, haurrendako zerbitzuak, gaur egun, egitura hau du:

PEDIATRA			
Astelehena			
Asteartea	Bertako kontsulta	Eskatutako kontsulta	Kontsulta bateratua
Asteazkena			
Osteguna			
Ostirala	Bertako kontsulta	Eskatutako kontsulta	Kontsulta bateratua
PEDIATRIAKO ERIZAINA			
Astelehena	Bertako kontsulta		
Asteartea	Bertako kontsulta		Kontsulta bateratua
Asteazkena	Bertako kontsulta		
Osteguna	Bertako kontsulta		Kontsulta bateratua
Ostirala			Kontsulta bateratua

AURIZKO KONTSULTA BATERATUA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 40 minutu egunean (2 egun astean). Ordubete programatzen da egunean (2 egun astean). Haur/nerabeen osasun azterketak, pediatriak eta erizainak eginak.

AURIZKO ERIZAINZAKO BERTAKO KONTSULTA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 60 minutu egunean (2 egun astean). 45 minutu programatzen dira egunean (5 egun astean). Haur/nerabeen osasun azterketak, erizainak eginak, + erizainaren jarraipena eskatzen duten prozesuak.

AURIZKO PEDIATRIAKO BERTAKO KONTSULTA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 45 minutu egunean (2 egun astean). Ordubete programatzen da egunean (2 egun astean). Haur eta nerabeen azterketak, pediatriaren jarraipena eskatzen duten prozesuetan.

AURIZKO PEDIATRIAKO KONTSULTA, ESKAERAREN ARABERAKOA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 60 minutu egunean (2 egun astean). 75 minutu programatzen dira egunean (2 egun astean). Gurasoek eskatutako kontsulta, haur eta nerabeen prozesu akutuetan, pediatriaren azterketa eskatzen dutenak.

AURIZKO SENDAGILEEN ETA PEDIATRIAREN ARTEKO KONTSULTA: 30 minutu programatzen dira jarraipena batera egin beharreko kasuez eta heziketaz mintzatzeko elkarrekin. (2 egun astean).

Egoera horixe izan da gaur arte, antolaketan aldaketarik egin gabe. Epe horretan, aipatzeko moduko gorabeherak profesionalen errotazioa da, ez-laneratze justifikatuengatik (kontratatu nagusiaren haurdunaldia, amatasuneko atsedenaldia eta ondoko eszedentzia). Era berean, bertako biztanleak, nahigabeturik daude pediatriako espezialistak kontratatzerik ez dagoelako (gure erkidegoan espezialitate hori dutenek uko egin diote espresuki lanpostu horri); familiako sendagile espezialista batek bete du.

2002ko URRIAREN 16KO EGOERA

Oinarrizko eskualdeko haur eta nerabeez arduratzen diren profesionalen agendek bere horretan diraute. Populazio tarte hori pixkanaka jaisten ari dela antzematen da. Gainera, haur gutxiago jaiotzen denez eta haurrak handitzen, taldearen adina gero eta altuagoa da. Horrela ikus daiteke taula honetan:

HAUR KOPURUEN BILAKAERA AURIZKO ESKUALDE OINARRIZKOAN 1996-2002

	Otik 2 urtera	3tik 6 urtera	7tik 14 urtera	GUZTIRA
1996: Zentsua ⁽¹⁾	77 (Otik 4 urtera)	98 (5etik 9 urtera)	109 (10etik 14 urtera)	284
1998: GICES 09/98 ⁽¹⁾	62 (Otik 3 urtera)	43 (4tik 6 urtera)	131	236
1999: TIS 06/99	40	52	128	220
2000: TIS 12/00	33	47	129	209
2001: TIS 12/01	25	59	122	206
2002: TIS 09/02	23	58	123	204

(1) Datu hauen adinaren arabera banaketa bestelakoa da.

(1) BEHARREN ESTIMAZIOA EGUNGO POPULAZIOAREN ETA ESKAINTZAREN ARABERA

AURIZKO KONTSULTA BATERATUA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 44 ordu urtean (berrogeita hamar minutu astean). Ordubete dago programaturik egunean (120 minutu astean). Gaixorik ez dauden haur eta nerabeen azterketak pediatrik egiten ditu, erizainarekin.

AURIZKO ERIZAINZAKO BERTAKO KONTSULTA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 64 ordu urtean (74 minutu astean). Kontsultako 45 minutuko tarte dago egunean (225 minutu astean). Horretan gaixorik ez dauden haur eta nerabeen azterketak ikusten dira, erizainarenak, eta erizainaren jarraipena eskatzen duten prozesuak.

AURIZKO PEDIATRIAKO BERTAKO KONTSULTA: Beharrak, haur kopuruaren arabera: 45 minutu egunean (2 egun astean). Ordubete dago programaturik egunean (2 egun astean). Kontsulta mota horretan pediatriaren jarraipena eskatzen duten prozesuen azterketak artatzen dira.

AURIZKO PEDIATRIAKO KONTSULTA, ESKAERAREN ARABERAKOA: Beharrak, egungo haur kopuruaren arabera: 60 minutu egunean (2 egun astean). Agendan dagoen denbora da 75

minutu egunean (2 egun astean). Kontsulta horretan artatzen dira gurasoen eskaerak, haur eta nerabeen prozesu akutuen kasuan, pediatriaren azterketa eskatzen dutenak.

AURIZKO SENDAGILEEN ETA PEDIATRIAREN ARTEKO KONTSULTA: Bada gainera denbora tarte bat (30 minutu) jarraipena batera egin beharreko kasuez eta heziketaz mintzatzeko elkarrekin. (2 egun astean).

Beste gai batera pasatuz eta Garrantzako eskualdeko hiltegia irekitzeari dagokionez, behi eta ardi azienda hiltzeko hobetu eta handitzeko, esan behar da salbuespen iraunkorreko hiltegi bat dela, Osasun kontseilariak uztailaren 22ko 159/1996 Foru Aginduaren arabera. Foru agindu horrek giza kontsumorako diren eta Nafarroako Foru Komunitateko salbuespen iraunkorreko hiltegi baimenduetatik ateratzen diren haragi fresko eta hondarkiak merkaturatzeko esparrua eta horiek markatzeko arauak ezarri sitúen, eta haragi freskoak banatzeko baimena eman zuen herri hauetan: Auritz, Luzaide, Erroibar, Orreaga, Orbaizeta, Aribere, Hiriberri, Orbara, Garaioa, Aria, Abaurrepea, Abaurregaina, Garrantza.

Hiltegi horretan behi, ardi eta ahuntz azienda hiltzen da, kopuru hauetan:

URTEA	BEHI-AZIENDA	ARDI/AHUNTZ AZIENDA
1998	75	357
1999	83	432
2000	70	476
2001	97	337
2002 (Irailera arte)	66	218

Horregatik guztiagatik, eskualdeko hiltegi bat dela ikusten da, non azienda mota horiek hiltzen diren.

Europako agintariek establezimendu hauei ezartzen dizkieten baldintza eta betekizun gero eta handiagoak direla-eta, oso zaila da haien bideragarritasuna.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko azaroaren 5ean

Osasun kontseilaria: Santiago Cervera Soto.

Galdera, Volkswageni Nafarroan ezarri zenetik emandako dirulaguntzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Volkswageni Nafarroan ezarri zenetik emandako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 22ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak galdera egin du Volkswageni Nafarroan ezarri zenetik emandako dirulaguntzei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andreak erantzuna.

– PAD01019 esped. Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak 1995eko uztailaren 5ean emaniko Foru Aginduaren bidez, 31.631.267,05 euroko dirulaguntza eman zen, inbertsioagatik, gauzatu eta egiaztatutako 345.828.729,58 euroko inbertsio baten gainean. Enpleguaren arloan, 1.607.707,38 euroko dirulaguntza eman zen 535 lanpostu finko sortzeagatik.

Inbertsioagatik dirulaguntza horretatik, 16.128.159,82 euroko kopurua ordaindu zitzaion VOLKSWAGEN NAVARRA, S.A.ri aipatutako foru aginduaren bidez, dirulaguntzaren gainerakoa lehenago (1994ko urtarrilaren 20an) ordaindu bai-

tzitzaion SOCIEDAD ESPAÑOLA DE AUTOMOVILES DE TURISMO, S.A.ri.

Enpleguagatik dirulaguntza horretatik, 282.475,69 euroko kopurua -94 lanposturi zegokiona- ordaindu zitzaion VOLKSWAGEN NAVARRA, S.A.ri aipatutako foru aginduaren bidez, enpleguagatik dirulaguntzaren gainerakoa lehenago (1994ko urtarrilaren 20an) ordaindu baitzitzaion SOCIEDAD ESPAÑOLA DE AUTOMOVILES DE TURISMO, S.A.ri.

– PAD02262 esped. Industria zuzendari nagusiak 2000ko urtarrilaren 20an emaniko ebazpenaren bidez, 2.319.032,12 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, egiaztatutako 15.649.254,74 euroko inbertsio baten gainean. Enpleguaren arloan, 1.237.483,92 euroko dirulaguntza eman zen 547 lanpostu finko sortzeagatik; laguntza horiek 2000ko urtarrilaren 20ko ebazpenaren bidez ordaindu ziren.

– PAD02583 esped. Industria zuzendari nagusiak 2001eko abenduaren 31n emaniko ebazpenaren bidez, 4.928.299,26 euroko dirulaguntza eman eta ordaindu zen, inbertsioagatik, gauzatu eta egiaztatutako 41.912.595,03 euroko inbertsio baten gainean. Dirulaguntza hori 2004ko ekitaldian ordainduko dela aurreikusi da.

– PAD03473 esped. 2000ko martxoaren 3an aurkeztutako instantzia baten bidez enpresak laguntzak eskatu ditu inbertsio plan berri baterako. Oraindik ez da inolako laguntzarik eman horretarako, Europako Batzordeak laguntza horiek emateari buruz hartu behar duen erabakiaren zain gaudelako.

Urtea	Programa	Araudia	Programa honetarako aurrekontua, guztira (pezetak)	Emana eta Volkswagenek betea	%, aurrekontu osoaren gainekoa
1994	-	-	-	-	-
1995	-	-	-	-	-
1996	-	-	-	-	-
1997	Prestakuntza etengabea	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	292.512.220	5.202.580	1,77
1998	Prestakuntza etengabea	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	269.600.000	5.662.924	2,10
	Lanerako prestakuntza	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	199.221.442	5.276.411	2,64
	FIP plana, INEMetik eskualdatua	Deialdi publikoa, ebazpen bidez	647.401.157	20.030.080	3,09
1999	Prestakuntza etengabea	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	534.622.749	5.540.000	1,03
	Lanerako prestakuntza	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	195.571.983	8.325.000	4,25
	FIP plana, INEMetik eskualdatua	Deialdi publikoa, ebazpen bidez	674.112.928	16.210.368	2,40
2000	Prestakuntza etengabea	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	593.960.055	4.780.000	0,80
	Lanerako prestakuntza	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	170.970.972	3.870.000	2,26
	FIP plana, INEMetik eskualdatua	Deialdi publikoa, ebazpen bidez	735.612.779	36.498.816	4,96
2001	Prestakuntza etengabea	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	592.421.177	5.520.000	0,93
	Lanerako prestakuntza	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	211.149.344	6.620.000	3,13
	FIP plana, INEMetik eskualdatua	Deialdi publikoa, ebazpen bidez	0	0	0
2002	Prestakuntza etengabea	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	695.221.605	5.520.000	0,79
	Lanerako prestakuntza	Deialdi publikoa, foru agindu bidezkoa	176.524.731	7.711.991	4,36
	FIP plana, INEMetik eskualdatua	Deialdi publikoa, ebazpen bidez	1.117.494.964	24.100.147	2,15
GUZTIRA, 1994-2002			7.106.398.106	160.868.317	2,26

2. Laguntzak jasotzeko baldintzak, horiek arautzen dituen araudian zehazten den bezala, hauexek dira: inbertsioak gauzatzea eta laguntza-aren xede diren inbertsioak hasi aurreko egoerarekin alderaturik plantilla gehitzea dakarten lanpostu mugagabeak sortzea.

Bistan denez, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu direlako ordaindu dira laguntzak.

Onuradunari eskatzen zaio halaber inbertsioei eutsi diezaien 5 urtez, eta hori hala dela sozietate-aren urteko kontuen bidez egiaztatzen da.

3. Polo berriaren fabrikaziorako inbertsioetarako, enpresak laguntzak eskatu ditu inbertsio proiektu batengatik, baina jaso ditzakeen inbertsioak 5 milioi eurotik gorakoak direnez, nahitaez-

koa da Europako Batasunari baimena eskatzea helburu erregionala duten laguntzak emateko (inbertsio eta enplegurako laguntzak), ibilgailu motordunen sektorerako Estatuak eman ditzakeen laguntzei buruzko Europako zuzentarauen - 97/6 eta 279/01-, beraz Nafarroako Gobernuak ez du inolako laguntzarik eman aipatutako inbertsio proiekturako.

Esan daiteke gainera baimenerako eskaera 2001eko urtarrilean egin ziola Nafarroako Gobernuak Europako Batzordeari.

Iruñean, 2002ko azaroaren 11n

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilaria: Nuria Iturrigagoitia Ripoll

Galdera, arriskuko kirolen praktika arautzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak arriskuko kirolen praktika arautzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 28ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du arriskuko kirolen praktika arautzeari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengo jarraikiz.

1. Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak aipatu kirolen segurtasunari eta horien gainean egin beharreko kontrolari buruzko araurik ematea?

2. Hala baldin bada, zein epetan aurreikusi du egonen dela prest araudi hori?

“Jumping” eta “puenting” izenekoak josteta eta aisiako jarduerak dira, kiroltzat harturik ez daudenak Estatuko araudian ezta Foru Komunitatean ere. “Rafting” izenekoak da Estatuan kiroltzat harturik dagoena, Espainiako Piraguismo Federazioaren barrenean. Jarduera mota hori, batzuk aisiakoak eta kirola bestea, gizarteak sortuak dira eta gizarte jarduera diren aldetik, gertaera aldakorak dira eta Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2002 Foru Legearen erregelamenduzko garapenean kontuan hartu beharko diren arriskuak ekar ditzaketenak.

Nafarroako foru lege hori erregelamendu mailan garatzen ari da orain, eta aurreikusirik dago hemendik gutxira foru dekretu bidez garatzea arriskuko kirolak, III. tituluan ezarritakoarekin bat.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko azaroaren 8an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria
Calixto Ayesa Dianda

Galdera, erditze, zesarea eta haurren ospitale-larrialdien kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak erditze, zesarea eta haurren ospitale-larrialdien kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko urriaren 2an, pediatriako laguntzari buruzko galdera egin du, jakiteko, hain zuzen, erditze eta zesarea kopurua, haur horiek laguntza pediatrikorik behar izan ote duten, haurren ospitale-larrialdien kopurua, etab. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Erditze eta zesarea kopurua, azken bi urte hauetan, honakoa da:

	2001 urtea			Urtarrila – iraila 2002 urtea		
	Erditzeak, guztira.	Zesareak	Arruntak	Erditzeak, guztira.	Zesareak	Arruntak
Urtarrila	73	14	59	54	11	43
Otsaila	64	12	52	63	13	50
Martxoa	61	5	56	75	10	65
Apirila	50	9	41	56	14	42
Maiatza	67	143	53	61	13	48
Ekaina	59	9	50	52	7	45
Uztaila	75	11	64	58	10	48
Abuztua	59	6	53	71	7	64
Iraila	74	10	64	77	16	61
Urria	75	16	59	-----	-----	-----
Azaroa	47	8	39	-----	-----	-----
Abendua	62	11	51	-----	-----	-----
GUZTIRA	766	125	641	567	101	466

Hau izan da erditzeak direla-eta pediatriari eginiko dei kopurua:

	1998 urtea	1999 urtea	2000 urtea	2001 urtea	Urtarrila - iraila 2002 urtea	BATEZ BESTE
Lanaldian	127	76	102	96	85	102
Lanalditik kanpo	117	80	87	105	117	106
Guztira	244	156	189	201	202	208
Erditzeak, guztira.	723	691	705	766	567	727

Larrialdi eta ospitaleratze pediatrikoak hauek izan dira azken hiru urteetan:

	2000 urtea		2001 urtea		Urtarrila - iraila 2002 urtea	
	Adin pediatrikoan daudenen larrialdiak	Larrialdien ondoriozko ospitalaratzeak	Adin pediatrikoan daudenen larrialdiak	Larrialdien ondoriozko ospitalaratzeak	Adin pediatrikoan daudenen larrialdiak	Larrialdien ondoriozko ospitalaratzeak
Urtarrila	632	78	583	79	704	73
Otsaila	543	57	524	64	627	69
Martxoa	557	60	602	64	618	56
Apirila	486	37	634	65	565	66
Maiatza	551	59	551	55	634	77
Ekaina	465	60	486	53	613	61
Uztaila	466	36	518	42	535	52
Abuztua	509	38	552	42	555	49
Iraila	549	65	513	36	559	53
Urria	569	63	628	47	-----	-----
Azaroa	479	50	534	52	-----	-----
Abendua	552	48	654	50	-----	-----
GUZTIRA	6358	651	6779	649	5410	556

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko azaroaren 22an.

Osasun kontseilaria. Santiago Cervera Soto

Galdera, pediatrek egiten dituzten guardiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak pediatrek egiten dituzten guardiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko urriaren 2an, pediatriako laguntzari buruzko 108/2002 zenbakidun galdera egin du, jakiteko, hain zuzen, ospitaleko guardiak egiten dituzten pediatren kopurua, zenbat guardia egiten duen pediatra bakoitzak hilean, pediatren lan egoera, etab. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Pediatriako guardiak Tuterako Reina Sofia ospitaleko bi pediatrek egiten dituzte, eta hurrengo osasun etxeei atxikitako bost pediatrek: Tutera ekialdeko OOLTa, Cascanteko OOLTa, Valtierra-Cadreitako OOLTa, Valtierra-Corellako OOLTak eta Cascante-Buñueleko OOLTak.

Uneotan 7 pediatra ari direnez pediatriako guardiak egiten, bakoitzak zortzi egunean behin egiten du lanegun batean guardia, eta hilabete eta erdian behin asteburu batean. Pediatra gehiago balira, guardia gutxiago egingo lituzkete, egunak espezialista gehiagoren artean banatuko bailituzkete.

Reina Sofía ospitaleari atxikitako pediatrak funtzionarioak dira, hori dute lan egoera. Tutera ekialdeko OOLTari, Cascanteko OOLTari, Valtierra-Cadreitako OOLTari, Valtierra-Corellako OOLTei eta Cascante-Buñueleko OOLTei atxikitako

pediatrak administrazio-araubideko kontratuak dituzten lanaldi partzialeko langileak dira –% 75eko lanaldia dute–.

Bestalde, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak otsailaren 14an emaniko 237/2002 Ebazpenaren bidez, OOLTko pediatra izateko lanpostuak oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zuen, eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Giza Baliabideen zuzendariak, irailaren 19an, deialdian onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onetsi zuen 1082/2002 Ebazpenaren bidez; bigarren ebazpen horretan, halaber, eskainitako lanpostuak adierazi ziren eta zein zeuden Tuterako osasun barrutiari atxikita.

1 Tutera mendebaldeko OOLTan, 64576 plantilla zenbakia.

1 Cintruénigoko OOLTan, 64179 plantilla zenbakia.

1 Valtierra-Cadreitako OOLTan, 66364 plantilla zenbakia.

1 Cascanteko OOLTan, 65408 plantilla zenbakia.

Deialdi horrek Cascanteko OOLTan eta Valtierra-Cadreitako OOLTan lanean ari direnengan izan du eragina.

Azkenik, esan behar dut, egun, Oinarrizko Osasun Laguntzan lanpostu finko edo behin-behinekoan lanean ari direnetako inork ez duela guardiarik egiten Bideko Ama Birjinako pediatriako larrialdietan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko azaroaren 21ean.

Osasun kontseilaria. Santiago Cervera Soto

Galdera, Tuterako ospitaleko laguntza pediatrikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Tuterako ospitaleko laguntza pediatrikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, 2002ko urriaren 2an, pediatriako laguntzari buruzko galderak egin ditu. Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna.

Tuterako osasun barrutiko pediatriako guardiekin erantzuna ematen zaie osasun barruti horretako haur guztien pediatriako larrialdiei.

Pediatriako larrialdi espezializatu horiek eskualdeko ospitalean zentralizatu eta bateratzen da, baina ez da soilik ospitaleko guardia, barruti osoko pediatriako larrialdiak baizik.

Lantokian egon beharreko guardiak urteko 365 egunetan egin ahal izateko 5 espezialista behar dira gutxienez, modu egonkorrean. Beraz, pediatriako larrialdiei pediatriako lantokiko bertako guardiekin erantzun nahi izanez gero, kanpoko pediatriak eta osasun barrutikoak ez direnak kontratatuz, beste 3 pediatra beharko liriateke, ospitaleko pediatriako albokoek ere guardiak egi-ten baitituzte dagoeneko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko azaroaren 22an.

Osasun kontseilaria. Santiago Cervera Soto

Galdera, Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoa zabaltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoa zabaltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 4ko 104. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo andreak galdera egin du Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoa zabaltzeari buruz. Hona hemen Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna.

Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoan 2002-2003 ikasturtean eskolatu diren hiru urteko haurren kopurua 2001-2002 ikasturtekoaren antzekoa da. Nahiz eta haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako gainerako mailetan 11 matrikula gehiago besterik ez den izan, gela batzuk bikoiztu egin dira eta beharrezkoak dira leku eta hornidura gehiago. DBHko lehenbiziko zikloko ikasleen eskolatzea (1. eta 2. maila) aise bertan dago aldi baterako, errentan hartu baitira Sagrados Corazones ikastetxea izandakoaren instalazioak.

Egoera kontuan hartuta, Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu teknikoek beharren programa bat prestatu eta hasierako arkitektura-azterketa bat egin dute ikastetxeko zenbait gune handitu eta egokitzeko; ikastetxeko zuzendaritzak ere parte hartu du lan horietan eta ados agertu da. Uneotan, proiektuaren idazketa kontratatzeko administrazio-espeditentaren tramitazio prozesua

hasten ari da; horretarako, 2003ko aurrekontuak erabiliko dira. Proiektua, idatzita jada, datorren urteko lehen hilabeteetan aurkez lezake adjudikazioa hartzen duen arkitektoak.

Aldi berean, Hezkuntza eta Kultura Departamentua Castejóngo Udalarekin hizketan ari da, alkatearen bidez, bi erakundeen arteko lankidetzaren ondorioz lehenbailehen gauzatu daitezzen handitze edo zabaltze obrak. Asmoa da, etorkizunari begira, hauek jasoko dituen konpromiso bat hartzea: Dos de Mayo ikastetxea handitzeko proiektua eta eskola zaharren desafektazioa, zeina Sagrados Corazones ikastetxearen mugakide den lursail batean baitago –han daude DBHko lehen zikloko ikasgelak–.

Derrigorrezko bigarren hezkuntza dela eta, maiatzaren 24ko 12/2001 Foru Legearen xedapen iragankorrek hau dio: “Derrigorrezko bigarren hezkuntzako bigarren zikloa pixkanaka ezarri eta ikasleen hezkuntza zerbitzua handitu ahalko du Nafarroako Gobernuak, herrian aurreikusi den

industri-garapenari begira”. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez du aurreikusita datorren urterako DBHko hirugarren maila jartzea Castejónen. Izan ere, hezkuntza-ziklo hori ongi ematen da Benjamín de Tudela BHIaren bidez; institutu horretan, LOGSEk aurreikusi eta Departamentuak Foru Komunitateko ikastetxeetarako garatu dituen hezkuntza arretako aukera guztiak eskaintzen dira. Horretarako, beste aurreikuspen batzuek gain, aipatutako institutuan beste hegal bat eraiki zen 2000 urtean. Edonola ere, Dos de Mayo ikastetxe publikoa handitzeko arkitektura-proiektuak zabalik utziko du handitze gehiagoren aukera, hezkuntza beharrak handiagotu egin baitaitezke herrian.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko azaroaren 25ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Nafarroako familiak babesteko politikari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Carolina Cas-tillejo Hernández andreak Nafarroako familiak babesteko politikari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 12ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Cas-tillejo Hernández andreak galdera egin du Nafarroako familiak babesteko politikari buruz. Hona hemen Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna, 2001. eta 2002. urteei buruzkoa, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz.

– Zaharretzeko toki bakoitzeko prezioa (honekin batera dago tarifen zerrenda).

– Eguneko zentroetako toki bakoitzeko prezioa (honekin batera dago tarifen zerrenda).

– Etxebizitza babestuetako toki bakoitzeko prezioa (honekin batera dago tarifen zerrenda).

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarrentzat zenbat plaza dauden zaharrentzako egoitzetan: ehunekoa.

• Jardunean:

Gai direnzentzako tokien %	% 3,01
Laguntza behar dutenentzako tokien %	% 1,61
GUZTIRA (%)	% 4,62

• Eraikitzen ari direnak:

Gai direnzentzako tokien %	% 0,26
Laguntza behar dutenentzako tokien %	% 0,34
GUZTIRA (%)	% 0,60

• GUZTIRA (jardunean gehi eraikitzen ari direnak):

Gai direnzentzako tokien %	% 3,27
Laguntza behar dutenentzako tokien %	% 1,95
GUZTIRA (%)	% 5,22

Datu guztiak 2001eko abenduaren 31koak dira. 2002ko ekitaldia ez dago itxirik, eta beraz arriskutsua da ehunekoak ematea kopuru absolutuen berri izan gabe.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarrentzat zenbat plaza dauden eguneko zentroetan: ehunekoak.

Jarduneko tokien %	% 0,29
Eraikitzen ari diren tokien %	% 0,24
GUZTIRA (%)	% 0,53

Datu guztiak 2001eko abenduaren 31koak dira. 2002ko ekitaldia ez dago itxirik, eta beraz arriskutsua da ehunekoak ematea kopuru absolutuen berri izan gabe.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarretatik zenbatek duen etxebizitza babestuetan plazarik: ehunekoak.

– Apartamentu babestuak, % 0,29

Datu guztiak 2001eko abenduaren 31koak dira. 2002ko ekitaldia ez dago itxirik, eta beraz arriskutsua da ehunekoak ematea kopuru absolutuen berri izan gabe.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarretatik zenbatek duen telelaguntza zerbitzua: ehunekoak.

Telelaguntza, % 4,15

Datu guztiak 2001eko abenduaren 31koak dira. 2002ko ekitaldia ez dago itxirik, eta beraz arriskutsua da ehunekoak ematea kopuru absolutuen berri izan gabe.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarrentzat zenbat elkarte dauden erretiratuentzat: ehunekoak.

Erretiratuen elkarte bat 65 urtez goitiko 450 pertsonako.

Datu guztiak 2001eko abenduaren 31koak dira. 2002ko ekitaldia ez dago itxirik, eta beraz arriskutsua da ehunekoak ematea kopuru absolutuen berri izan gabe.

– 65 urte baino gehiago dituzten herritarretatik zenbatek duen etxeko laguntza: ehunekoak.

Zuzeneko laguntza, %	% 3,89
Laguntza ekonomikoa, %	% 1,93
GUZTIRA (%)	5,82 %

Datu guztiak 2001eko abenduaren 31koak dira. 2002ko ekitaldia ez dago itxirik, eta beraz arriskutsua da ehunekoak ematea kopuru absolutuen berri izan gabe.

– Bere jarduerarako lokal bat daukaten erretiratuen elkarten kopurua, eta 65 urte baino gehiago dituzten herritarren beharizanak noraino betetzen dituzten.

Nafarroan dauden 212 erretiratuen elkarteetatik 13k ez du lokalik bere jarduerak betetzeko. Guztiak Iruñean daude.

Datu guztiak 2001eko abenduaren 31koak dira. 2002ko ekitaldia ez dago itxirik, eta beraz arriskutsua da ehunekoak ematea kopuru absolutuen berri izan gabe.

– Gizarte Ongizate Departamentuko Adinekoen Kontseiluarekin izaniko bilerak; haietan azterturiko gaiak, kontseiluko kideak.

Dokumentazio hau bidali dugu:

- Azaroaren 24ko 344/1997 Foru Dekretua, Nafarroako Adinekoen Kontseilua sortu zuena.
- Nafarroako Adinekoen Kontseiluaren bilkura guztien deialdiak eta aktak.

Hori jakinarazten dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2002ko azaroaren 22an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria
Calixto Ayesa Dianda

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

Galdera, euskarari buruzko Foru Legeak definituriko lurralde-eremuen arabera, errepideetako kontserbazio programen barruan eginiko jarduketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix Puyo Rebollo jaunak euskarari buruzko Foru Legeak definituriko lurralde-eremuen arabera, errepideetako kontserbazio programen barruan eginiko jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 12ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Félix José Puyo Rebollo Askotariko taldeko foru parlamentariak galdera egin du jakiteko zer jarduketa egin diren, kontserbazio programen barruan, Nafarroako errepide sareko seinaleak direla-eta, 372/2000 Foru Dekretuak indarra hartu zuenetik. Hona Herrilan, Garraio, eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

“1. Euskarari buruzko Foru Legean eremu mistotzat eta eremu euskalduntzat jotako lurralde-eremuen arabera, kontserbazio programen barruan errepideetako seinaleak berri eta egin berritako errepideetan seinaleak ezartzeko eginiko jarduketa guzti-guztien zerrenda, 372/2000 Foru Dekretuak indarra hartu zuenetik gaur artekoa.

Zehazki, jarduketa bakoitzari buruzko ondoko alderdiak ezagutu nahi ditut:

- egindako jarduketa

- jarduketa hori justifikatzeko arrazoiak: seinaleen egoera, errotulazio berria... eta abar

- jarduketaren kostu ekonomikoa.”

Esan behar da, galdera horri buruz, 2001 urtean eta 2002 urtean, orain arte, honakoak izan direla jarri diren seinale testudunak:

1. Zainketa programa.

1.- Eginiko lan guztiek hurrengoren bat hartu zuten helburu:

– Egungo araudira egokitzea (8.1 IC) hondatuta dauden lamazko seinaleak eta geziak; batzuk denboraren denboraz daude hondatuta, eta beste batzuk bandalismoaren ondorioz (Iparraldeko ingurabidea NA-30, Ekialdeko ingurabidea NA-32, N-121-A, NA-150, N-111 Erreniaga mendatea, N-240, N-135, NA-140, NA-137, NA-1370, NA-2040, NA-2030, NA-2032, Lizarrako saihebidia, N-111 Azketako tunelak eta Lizarra).

– Zaintze-obra berrietan seinaleak jartzea (Ultzama, Eguesibar, N-121-B Mugairi-Oharriz, Elizondo-Amaiur, N-121-A Berrizaun, NA-4000 Lesaka-Gipuzkoako muga, Añorbe-Tirapu, Artika, Oritz, Larrageta, Tiebasko bihurgunea).

– Seinaleak garbitzea, zahartuta daudelako edo bandalismoagatik zikin (Lizarrako erdialdea, Iruñeko erdialdea, Agoizko erdialdea, Irurtzungo erdialdea).

– Ainguraketa eta euskarriak berrikustea, bai eta hondatutako lama eta geziak ordeztzea A-15 Iparraldeko Autobiaren korridorean eta N-240 Sakanako Autobian.

2. Hauexek izan dira jarduketa horiek gauzatzeko erabilitako diruak:

	Irurtzun	Mugairi	Lizarra	Iruña	Agoitz
Lamazko seinaleak	6.071	30.082	34.680	173.440	46.540
Geziak	12.681	8.858	971	24.390	21.015
Garbiketa-lanak				8.982	166,88
Eremua	M+E	E	M+Ez E	M+E+Ez E	M+E+Ez E
Euroak, guztira.	18.752	38.940	35.651	206.812	67.721

2. Obra berriak:

OBRA	EREMUA	KOSTU EKONOMIKOA
N-I, Altsasu/Alsasua-Etxegarate	E	150.000 euro
N-121-A, Arrigaztelu	E	6.000 euro
NA-170, Leitza-Doneztebe/Santesteban.	E	5.000 euro
NA-140, Ezkaroze-Otsagabia	M	6.000 euro
GUZTIRA		167.000 euro

M: EREMU MISTOA

E: EREMU EUSKALDUNA

C: EREMU EZ EUSKALDUNA

Aierdi, Nuin eta Rubio foru parlamentariari irailaren 25ean erantzun zitzaenez, bai eta urriaren 4an zeuri ere, lan horiek guztiak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren lan arruntak dira, errepideetako seinaleak zaintzeko lanak baitira eta azpiegitura berrietan seinale berriak jartzeko lanak; beraz, ez dago inondik inorako gain-kosturik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko azaroaren 26an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, hedabideetan euskara erabiltzeko laguntzetarako deialdi publikoa ez egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Félix José Puyo Rebollo jaunak hedabideetan euskara erabiltzeko laguntzetarako deialdi publikoa ez egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 12ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeko Félix José Puyo Rebollo foru parlamentariak galdera egin

zuen hedabideetan euskara erabiltzeko laguntzetarako deialdi publikoa ez egiteari buruz; Hezkuntza eta Kultura kontseilariak jakinarazten du deialdia 2002ko azaroaren 20an argitaratu dela Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 140. zenbakian. Aurtengo deialdian ez da ezartzen eskabideak aurkezteko muga-egunik; esaten dena da deialdia "argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera 15 egun naturaleko epean aurkeztuko direla" eskabideak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 2an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, beste autonomia erkidegoek behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formea dela-eta emandako laguntzekin izan duten estrategiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak beste autonomia erkidegoek behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formea dela-eta emandako laguntzekin izan duten strategiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 9an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du beste autonomia erkidegoek behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formea dela-eta emandako laguntzekin izan duten strategiari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

Galderaren azalpena ikusita, ondoriozta daiteke ez zaiola Nafarroako Foru Komunitatean laguntzarik eman 2002 urtean, entzefalopatia espongi-forme kutsagarriak direla eta, abeltzaintzako sektoreari; horren zalantzarik izan ez dadin, hona hemen orain arte Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ekitaldi honetan eginiko gastua:

Nasera berariazko laborategiaren funtzionamendua	382.800
Konpentsazioa, entzefalopatiaren aseguru-primak direla eta	710.950
Abeltzaintzako ustiatzietan hildako animaliak biltzeko kontratuaren luzapena.	65.770
Abeltzaintzako ustiatzietan hildako animaliak biltzeko ardura ematea ITG Ganaderori	116.700
ITG Ganaderok azterlana egitea elikaduran animalien proteinak erabiltzeari buruz	99.000
ITG Ganaderorentzako dirulaguntza, bertako behi-azienda hedatzeko	60.100
"Nafarroako Aratxea" Adierazpen Geografiko Babestuaren kalitatezko haragia sustatzeko dirulaguntzak	60.200

Abeltzaintzako ziurtagirietarako dirulaguntzak	72.700
Material arriskutsuen tratamendurako dirulaguntzak	150.740
Toki entitateentzako dirulaguntzak, zezenketetako behi-aziendak suntsitzeari buruzko errekurtsioa baiestearen ondorioz	6.250
Behi-aziendaren entzefalopatia espongi-formearen primarako dirulaguntza; 2001eko errekurtsioaren baiespena.	8.730
Iruñerriko Hondakinen Mankomunitatearentzako dirulaguntza, sinatutako hitzarmena dela eta.	153.260
Kontsumorako ez diren animaliak suntsitzeko abeltzainei emaniko dirulaguntza	59.970
ITG Ganaderorentzako dirulaguntza, esnetarako ardi-azienda hedatzeko	209.000
Berariazko laborategi bat izateko inbertsioak	240.400
ITG Ganaderorentzako dirulaguntza, abeltzaintza ekologikoari buruzko azterlanak egiteko	435.760
Azienda nahitaez hil behar denerako, abeltzaintzako dirulaguntzak	147.080
GUZTIRA	2.979.410

Egiten dituzun galderari buruz, hau daukat zuri esateko:

Lehenbizikoa.- Ez; ez baitira departamentu honen eskumenekoak beste autonomia erkidego batzuen jarduketak, eta are gutxiago etorkizunekoak, nola baita 2003. urtea.

Bigarrena.- Ez.

Hirugarrena.- Ez horixe; nahiz eta beste autonomia erkidego batzuk, iraganean, salatu izan duten Nafarroako Foru Komunitatea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2000ko abenduaren 4an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria Ignacio Javier Martínez Alfaro

Galdera, poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du poliziaren arloko eskumenak hartzeari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Foru Komunitateak ez du eskumenik eskatu behar poliziaren arloan, eta ez dio, beraz, inongo negoziatori ekin behar arlo horretan eskumenak bere gain hartzeko.

Nafarroak, Foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 51. artikuluan xedatutakoaz baliatuz, eskumen zabalak ditu poliziaren arloan, zehazki, alderdi batzuetan beste autonomia erkidego batzuenak baino zabalagoak, eta bertako polizia du, Nafarroako Foruzaingoa, Konstituzioaren aurretik ere bazegoena eta beste polizia autonomiko batzuen eginkizun berdinak betetzen dituen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 11n

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, trafikoaren arloko eskumenak hartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak trafikoaren arloko eskumenak hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2002ko azaroaren 22ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak galdera egin du trafikoaren arloko eskumenak hartzeari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

1. Nafarroako Gobernuak 2002ko uztailaren 22an Erabakia hartu zuen eskatzeko formalki Estatuari, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko lege organikoaren 39.1 eta 2 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, Estatuko trafikoaren, motordun ibilgailuen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloko legeria berrezarri eta betearazteko eskumena, behar diren hitzarmenen eta tresna juridikoen bitartez.

2. Nafarroa eskumen horiek bere gain hartzeko moduan dago.

3. Foru Komunitateko administrazioak eskumen horiek betetzeko izan ditzakeen beharrak eta bere baliabideen erabilera norainokoa izanen den Estatuko administrazio orokorrak eskualdatzen dituen giza eta gauza bitartekoen zehaztapen eta balorazioaren menpe daude; gai hori Transferentzien Batzorde Mistoak hartutako erabakiaren bidez eta zerbitzuak eskualdatzeko eman beharreko errege dekretuarekin argitu eta gauzatuko da.

4. Foru Komunitateko ordezkariak onartzea gure erkidegoan bide segurtasunean aritzen diren guardia zibilak, hala nahi izanez gero, Foruzaingoan sartzea ez da Estatuaren baldintzetako bat Nafarroak trafikoaren, motordun ibilgailuen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren arloko eskumenak bere gain har ditzan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2002ko abenduaren 5ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	